

LATINOAMERIKA: Hondurasko
Estatuari leporatu dio familiak
Bertha Caceresen erailketa > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Lehentasun hartuta, zaindu
dezagun Arnaldo Otegi MIKEL ZUBIMENDI > 11

2016ko martxoaren 12a | X. urtea • 459. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



DENOK KABITZEKO MODUKO ESKOLA

> 12 Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Hondurasko Estatuari leporatu diote Bertha Cáceresen hilketa 04

Turkiako Gobernua, Fethullah Gulen erlijiosoaren aurka 08

Samiraren kasuak ikasleen ghettoak azalerarazi ditu 12


Ortzadar elkartea, mugako adimena dutenekin 18

Elkarrizketa: Juainas Paul Arzak, historialaria, sorginez 22

Zapiainen Bizi-Goxo, errezil sagarra edari hotz bihurtua 26


Infraganti: Aitor Rodriguez, argazkilaria 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Europaz ari gara, lotsatuta
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:** «Bilbao Bizkaia» marka
- 11 **Mikel Zubimendi:** Lehentasun hartuta, zaindu dezagun Arnaldo Otegi
- 16 **Xabier Mikel Errekondo:** «Look»-a
- 17 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Gorka Zozaia:** Harri bat lokatzetan
- 21 **Garazi Goia:** Lasai edo errudun sentitu
- 27 **Maidier Iantzi:** Ikusiaren ikusiz, eszitazioa galdu
- 30 **Iratxe Esnaola:** «Ziber(bullying)»-a



{ datorrena } Iratxe Urizar

Europaz ari gara, lotsatuta

Immigrazioa eta immigrazio politikena gure arazoa ez balitz bezala tratatzen den gaia da. Urrunetik edo urrunekoa balitz bezala sumatzen dugu. Etorkinak, orokorrean, gure miseria propioen errudun egiten ditugu, europar politikarien diskurtsoetan gurea (“gurea” hori inoiz euren aldarrikapena izan ez den babes soziala izanik) lapurtzera datorren marabunta gisa agertzen dira, “des-gizakituz” pertsona horiek, imajinario katolikoan oso presente dagoen “Egiptoko hamar plagak” probokatzeko prest dagoen ezezagun talde kaotikoa.

Urrunetik bizi dugu ere Ameriketako Estatu Batuetako hauteskunde kanpainako gai zentraletako bat izaten ari den politika migratorioa. Martxoak 8aren testuinguruan, urteroko manifestaldi eta elkarretaratzeek harago, aurtan asko eta asko izan dira antolatutako hitzaldi, eztabaida eta mintegiak. Etengabeko mugimenduan dagoela erakutsi du mugimendu feministak, modu transbertsalean askotan agenda politikoan ez dauden gaiak mahaigaineratuz. Basauriko Marienea aretoan ere, beste hainbat tokitan bezala, izan da ekimen oso interesgarri bat. Emigrazioa, errefuxiatuak eta emakumezkoak. Han ikasi genuen badagoela Ameriketako Estatu Batuetan sarzketotan diren emakumeek erabiltzen duten iraupen luze-ko injekzio antisorgailua. Hiru hilabetez haurdun geratzea ekiditen du. Mexikotik muga pasatzeko denbora, hain justu. Horren ohikoa da, horren barneratuta dute bidaiaren ordaindu beharreko “bidaia-sari” ekidin ezinekoa bortxatua izatea izango dela, non gutxienez nahi ez duten haurdunaldia ekiditeko bidea jarri duten, izena ere baduena: “anti-Mexiko injekzioa” hain zuzen.

Baina ez da horren urrun joan beharrik ere. Sare soziale- tan begirada azkar bat bota, edo bertaratutako kazetarien blogetan sartu eta hemen, etxean, gure European, une hone- tan gertatzen ari denaz jabe gaitezke. Ongizatearen espazio deitzen den gure Europa zaharrean milaka eta milaka per- tsona egoera lazgarrian bizi dira une honetan. Schengen es- parruan atrapatutako mugitu ezinean teoriarik ez dagoen estatu arteko mugen artean. Etsituta ikusten dituzte merkantziak beteriko trenak oztopo gabe alde batera eta bestera igarotzen beraiek lokatz artean mugitu ezinik lotu- ta daude bitartean; euripean egiten dute lo jaioberriek; jate- korik ez eta hotzez hiltzen ari dira hainbat. Mugek itxita ja- rraitzen duten bitartean, euren etorkizuna erabakitze- ko erreferendumak egiten ari gara europarrok, Hungarian ka-

su: zenbat etorkin nahi ditudan, ze kuota eta ze preziotan. Gizakien –esperantzen finean– salerosketa. Mugak ixteare- kin batera pertsonen trafikoan aritzen diren mafiek pozik egon behar dute, negozio ederra ikusiko dute eta martxan jartzeko puntuan. Turkiara deportazio masiboa adosten ari dira egunotan; ez da giza eskubideak errespetatzen duen herrialde horietako bat, hain zuzen. Baina Grezian, Fran- tzian eta abar bizi direnen egoera ikusita, ez gara orain hasi- ko giza eskubideen errespetua bezalako txikikerien ingu- ruan negoziatzen, ezta? Ez da Kobanen, ez da Sirian, ez da Iraken gertatzen. Europar agintariak azkar jarri ziren ados “gizarte zibila babesteko” urruneko hainbat herrialdetan egin beharreko bonbardaketen inguruan. Horretan erabili- tako parte txiki-txiki batekin Idomani, Calais eta beste ha- maika tokitako krisi humanitarioarekin bukatzeko nahikoa eta sobera legoke.

Eta, berriro ere, amesgaizto horretan bizitzea emakume edo neskatoka izanda. Hasi dira bortxaketa eta eraso sexua- len salaketak ateratzen (betiere, errealtatearen isla mini-

Ongizatearen espazio deitzen den Europa honetan milaka pertsona egoera lazgarrian bizi dira. Schengen esparruan atrapatuta, teoriarik ez dagoen estatu arteko mugak ezin igarota

moa). Berriro ere, egoera horietan, lazgarrietasun, oraindik eraso gehitu bat, inguruan dituzten gizonezkoen aldetik, bidean pasatzen dituzten herrialdeetako gizonezkoengan- dik. Berriro ere, Europaz ari gara. Mexikon bezala, hemen ere “Europaren kontrako injekzio” antisorgailua ematen hastea onartuko al dugu?

Manifestazio jendetsuak egin dira hiri ugartan, herria- ren elkartasunaren adierazgarri. Ekimen asko dira martxan maindire eta lehen mailako beharrak biltzeko. Baina ezin dugu ahaztu Europako instituzioak Europako ordezkariak direla, gizartearen ordezkariak. Ez da soilik instituzio ho- riek aldatzearen beharra inoiz baino urgentiagoa dela, gi- zaratea bera aldatzeko lanean jarri behar gara urgentziaz; instituzioak aldatzeaz gain han eta hemen gertatzen dire- nak aldatu behar direlako. Urgentziaz. Europarra izateaga- tik lotsarik ez sentitzeke. •

LATINOAMERIKA

Hondurasko Estatuari leporatu dio familiak Bertha Caceresen erailketa

📁 POLITIKA / Jose Angel Oria eta Asier Vera

Guk borrokan jarraitu beste aukerarik ez dugu, urik gabe utzi nahi gaituzte-eta», esan zuen joan den igandean Maria Mercedes Gomez 61 urteko emakumeak, Bertha Caceres Copinh Hondurasko Indigena eta Herri Erakundearen Kontseiluko koordinatzailearekin batera protesta askotan esku hartu zuen ekintzaileak. Lenka etniako indigenek agindu zuten Caceresek abian jarritako lanarekin tinko jarraituko dutela, Gualcarque ibaia babesten segiko dutela, «berak konpainia hidroelektrikoei aurre egiteagatik bizitza eman du-eta».

Bertha Caceres ekintzailearen ingurukoek badakite zer gertatu den: Desa-Sinohydro konpainiak, herrialdean proiektu hidroelektriko bat abian jartzen ari denak, askotan egin zion mehatxu bere diruzalekeriari enbazu egiten zion emakumeari, eta azkenean mehatxuak erailketa bihurtu ditu. «Pertsona batzuk atxilotu dituztela esan digute, baina ez dago guk nahi

dugun erantzunik, ez digute argituko ez nor den egile intelektuala ez nork egin zion tiro, krimen honen arduraduna nor den jakiteko», adierazi zien kazetariei Olivia Zuñiga alabak.

Hondurasko Poliziak jakinarazi du hiru pertsona atxilotu dituela: Tomas Gomez, Copinh kontseiluaren jardueratan esku hartzen zuen adin txikiko bat eta Jose Ismael Lemus eraso egin zen lekuko segurtasun zaindaria.

Caceresi tiro egin zioten momentuan Mexikoko Gustavo Castro ekintzailearekin zegoen,

La Esperanza hirian. Otros Mundos Chiapas elkarteke zuzendaria bera ere zauritu egin zuten. Larunbatean aireportura joan zen, Mexikora itzultzeko asmoarekin, baina herrialdetik irtetea debekatu egin zioten, lekuko moduan deklaratu egin behar duelako. «Gustavo Castro erasoaren biktima dela gogorarazi beharrean gaude», adierazi zuen Otros Mundos elkarteak.

«KRIMEN POLITIKOA»

Bertha Caceresen seme-alabek Juan Orlando Hernandez Hondurasko presidenteari leporatu

Bertha Caceresen amak (ezkerrean) eta seme-alabek prentsaurreko bat eskaini zuten La Esperanzan ekintzailearen heriotza Hondurasko Estatuari leporatzeko. Ikerketa independente bat eskatu zuten, Mexikon desagerrarazi zituzten 43 ikasleen inguruan egin zen moduan.
Orlando SIERRA | AFP

diote «krimen politikoaren» ardurak: «Hernandez presidentea, zera esan behar dizugu: Bertha Caceres hil dute, baina zure Gobernua hiltzorian dago». Caceresen familiak, Estatuaren aurka-ko salaketa aurkezteaz gain, nazioarteko ikerketa egitea exijitzen du, bertako Justizia Administrazioaz ez baita fidatzen.

Presidenteak Zeid Ra'ad Al Hussein Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioari eskatu dio ikerketan laguntzeko, agintariaren bulegoak jakinarazi duenez. Baina erabaki hori «propaganda» besterik ez da, Silvio Carrillo hildako ekintzailearen ilobak esan duenez: «NBEko erakunde hori ez dago espezializatuta tankerako ikerketetan».

Silvio Carrillok Mexikon desagerrarazi zituzten 43 ikasleen inguruko ikerketa ekartzen du gogora bere izebaren kasuan egin beharko litzatekeena azaltzeko. Berak nazioarteko aditu independenteak nahi ditu kasuan, ez baita batere fidatzen agintariak egingo dutenaz. Gauza bera eskatu dute Amnesty International eta gobernuz kanpoko beste hainbat erakundek.


Ez da harritzekoa Tegucigalpa-ko agintariak gai honetan inolako sinesgarritasunik ez izatea. Global Witness gobernuz kanpoko erakundeak iaz egin zuen txostenaren arabera, Honduras ingurumenaren aldeko ekintzaile gehien hiltzen dituzten herrialdea da: 111 hildako 2002tik 2014ra.

«Ez daukagu horiek egingo duten ikerketaz fidatzerik –esan zuen Olivia Zuñiga alabak–. Nire amak geldiarazi nahi zuen urtegia egiteko baimenak eta kontzesioak funtzionario horiek eman zituzten».

KONPLIZE UGARI

Edonola ere, Silvio Carrillo ilobak dio Bertha Caceresen aurka-ko erasoaren arduradun baka-rrak ez direla Desa-Sinohydro konpainiako jabeak: «Hondurasko ia gauza guztiak hamar hamabost familien artean banatzen dira eta horietako bat da Desaren jabe. Beraz, ardura horiei leporatzerik badago, baina





Bertha Cáceres txartelean, eta Romero monsinorea kamisetan. Orlando SIERRA | AFP

Caceresen familiak, Estatuaren aurkako salaketa aurkezteaz gain, nazioarteko ikerketa egitea exijitzen du, Hondurasko Justizia Administrazioaz ez baita fidatzen

Global Witness erakundeak iaz egin zuen txostenaren arabera, Honduras ingurumenaren aldeko ekintzaile gehien hiltzen dituzten herrialdea da: 111 hildako 2002tik 2014ra

arazoaren zati bat baino ez dira, hedabideak, enpresetako elitea eta aginte egitura ere konplize dira-eta».

Silvio Carrillo AEBetan bizi da, Kaliforniako Oakland hirian. Izeba hil zutela jakin zuenean etxekoekin hitz egin zuen, baina, Hondurasera joan beharrean, Washingtonera joatea erabaki zuen, «Bertitaren mezua eramatera». Astelehenaz geroztik makina bat bilera egin ditu AEBetako Estatu Departamentuan, senatarien bulegoetan, Amerikako Estatu Erakundearen idazkaritzan... Horiei guztiei esan die Tegucigalpako ikerlariak egin duten lana ez dela on-tzat emateko modukoa.

NAZIOARTEKO OMENALDIA

Joan den larunbatean ehortzi zuten Bertha Cáceres La Esperanza jaioterrian. Milaka lagun elkartu ziren ekintzaileari azken agurra egiteko. Brasileko, AEBetako, Suitzako, Mexikoko eta beste herrialde ugarietako ekintzaileak ere bertaratu ziren, len-

ka herriaren burua oso ezaguna baitzen Hondurasetik kanpo ere. Manuel Zelaya Hondurasko presidente ohia (estatu kolpe batek kendu zuen kargutik 2009an) ere joan zen Cáceresen amaren etxera, hildakoaren gaubailara.

Jatorriko herri bateko kide izanda, lenka herriko alaba izanik, horrenbesteko oihartzuna izatera iristea ez da erraz ulertzen, Bertha Cáceresekin berarekin egon ez bazara behintzat. Maria Mercedes Gomezek, esaterako, mobilizazio eta jarduera askotan esku hartu zuen Cáceresekin batera. Gomezen esplika-zioen arabera, Cáceresek Santa Barbara departamentuko Agua Zarca komunitateko herritarrei lagundu zien beren burua antolatzen, urtegiak egiteko proiektuei aurre egiteko. Hasiera bateko protestak Txinako konpainia baten aurkakoak izan ziren. Alemaniatik eta Munduko Bankutik ere iritsi zen orduan dirua, eskualdea garatuko omen zuen proiektua aurrera ateratzeko.

LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA TXINAKO ENPRESA PUBLIKOA

Sinohydro konpainia Pekinen eratu zuten 1950ean. Mundu osoko ingeniari-tza konpainien artean 14. postuan zegoen 2012an. Sinohydrok aurrera ateratako proiektuen artean ageri da Hiru Arroiletako presa, planeta osoan egin den proiektu hidroelektrikorik handiena. Argindarra sortzeko ahalmen handiena duen ur indarretxea da, 22.500 gigawatt sortzeko gai baita (Txinako energia beharren %9). Peruko San Jose izeneko proiektu hidroelektrikoa ere Txinako konpainiaren esku geratu da, baina bertako langileek sekulako arazoak izan dituzte beren lan baldintzak hobetu zituzten. Hiru aldiz agindu die Sinohydrok gauzak hobetuko zituela, baina kosta egiten zaio agindutakoa betetzea.



Baina herritarren kontrako jarrerarekin egin zuten topo eta atzera egin beharrean izan ziren. Harritzekoa bada ere, proiektuaren aldekoek onartu behar izan zuten herritarren presioak eragin zuela beraien jarraera aldaketa.

GARA egunkarian joan den ostegunean Mugarik Gabe era-

kundeko Jesus Gonzalezek azaldu zuenez, BBC telebista kate britainiarrak berak ere nabarmendu zuen Bertha Caceresek «Txinari eta Munduko Bankuari amore emanarazi ziela».

700 FAMILIA, ZUTIK

Baina ondoren Desa (Desarrollos Eléctricos Sociedad Anóni-

ma) sortu zuten, Hondurasko kapitalarekin, eta ibaiek mehatxupean jarraitu zuten. Gomezek azaltzen duenez, ibaia desbideratzeko traktoreak erabili dituzte Desakoek, «eta guk protestaldiekin jarraitu beharra daukagu, gure artean antolatu eta ibaia defenditzera joan», nahiz eta Caceres hil duten.

Bertha Caceresen aldeko ekintzaile bat protesta egiten, Guatemalan Hondurasek duen enbaxadaren aurrean.
Johan ORDONEZ | AFP

«UKIEZIN BIHURTUTA ZEGOEN ETA HONDURASKO PRESIDENTE IZATERA IRITSIKO ZEN»

Hondurasen ez dago ez demokraziarik ez zuzenbide estaturik, Caceresen aurkako erasoak agerian utzi duenez. Manuel Zelaya presidentea estatu kolpe baten bitartez kendu zuten kargutik 2009an eta geroztik herrialdea indarkeria sailkapen guztietan goiko postuetan ageri da. Lenka herriko alaba bera litzateke egoera horretatik irteteko itxaropen nagusia, Silvio Carrillo ilobaren ustez: «Bertita gauza handiren bat egiteko jaio zen. Honduras hobetzeko prozesua abian jartzera zihoan. Azkenean bagenuen Hondurasen lotsatzen ez gintuen buruzagia, mirestekoa modukoa. Beste inor ez zen iritsi Hondurasen bera iritsi zen puntura eta uste dut horregatik pentsatuko zutela hiltzaileek bere bizitzari amaiera eman beharrean zeudela, bestela ezin zuten geldiarazi-eta. Ukiezin bihurtuta zegoen eta horregatik hil dute». Carrillo Bertha Caceresen iloba zen arren, arreba

nagusi moduan ikusten zuen izeba: «Hondurasko presidente izatera iritsiko zen. Rigoberta Menchu Guatemalarentzat 1990eko hamarkadan izan zen neurrikoa edo garrantzia handiagokoa zen Hondurasentzat Bertita». Iaz “Nobel Berdea” eman ziotenean, galdetu zitzaion ea golardoak bere segurtasuna babesten lagunduko ote zuen: «Gobernua ingurumenaren eta lurraren aldeko ekintzaileen erailketak ohiko indarkeriarekin lotzen saiatzen ari da, baina herri eta giza mugimendu guztien borroka kriminalizatzea helburu duen politika baten aurrean gaude. Multinazionalen proiektuen hedapenak, gizartean gatazkak eragiteaz gain, giza eskubideen bortxaketa larriak ere ekartzen ditu. Baita erailketak ere. Nahiago nuke oker egongo banintz, baina uste dut borrokalarien aurkako jazarpenak gora egingo duela, behera egin beharrean». Buruargitasun tragikoa.

Bere kalkuluen arabera, 700en bat familiek bat egin dute protestarekin. Ondoan duen Francisca Garciak (39 urte) eransten du hala ere herritar batzuk konpainiaren alde daudela. Maria Mercedes Gomezek esplikatu du zergatik: «Beraien lurra saldu egin zioten konpainiari, edo konpainiaren dirua jaso zuten. Orain militarrekin, poliziekin eta enpresak zein Gobernuak bidalitako zaindarekin bat egiten dute».

Gatazka giro hori 2009ko ekainaren 28ko estatu kolpeak areagotu zuen. Lurra eta baliabide naturalak defenditzen dituzten ekintzaileen egoera larriagotu egin zen, Porfirio Loboren eskuineko Gobernuak (kolpisten gustukoa) konpainia handien interesekin bat egiten zuen bitartean. Lobo agintera iritsi bezain pronto, 47 kontzesio hidroelektriko eman zituen legedia kontuan hartu gabe. Izan ere, Hondurasek onartuta daukan nazioarteko hitzarmenaren arabera, jatorrizko herriei galdetu egin behar zaie ea onartzen duten beren lurretan jarduera ekonomiko jakin bat kokatzea, eta lenka herriari ez diote ezer galdetu. Gainera, estatu kolpearen ondoren beste lege iskanbilatsu bat onartu zen herrialdean: Gobernuak ibaiak saltzeko aukera du arau berriaren arabera.

SEGURTASUN EZA ETA USTELKERIA

Lege aldaketok eta kolpisten Gobernuaren jarrerak ahalbidetu zuten Hondurasko egoera ikaragarri gaiztotzea. Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeak herrialdea bisitatu ondoren esan berri du giza eskubideen egoera larria dela. Erika Guevara eledunaren hitzetan, gaur egungo krisia areagotzen dute «segurtasun ezak eta ustelkeriak».

Porfirio Lobo Gobernura iritsi zenetik, Cofadeh Hondurasko Atxilotu Desagerrarazien Senideen Batzordeak egin dituen kalkuluen arabera, legedia giza eskubideen aldeko ekintzaileen aurka 3.064 aldiz erabili da behar ez bezala. Kaltetuenak ingurumenaren eta lurraren aldeko ekintzaileak dira, jazarpena sis-

Hasierako protestak Txinako enpresa baten aurkakoak ziren. Alemaniatik eta Munduko Bankutik ere iritsi zen dirua, eskualdea garatuko omen zuen proiektuarentzat

Herritarren kontrako jarrerarekin egin zuten topo eta atzera egin zuten. Urtegiaren aldekoek onartu zuten herritarren presioak eragin zuela beraien jarrera aldaketa

tematikoa jasan behar izaten baitute. Aipatu elkarteak erans-ten du pertsona horien bizitza arriskuan dagoela, sindikatueta-ko buruak ere kriminalizatuta daudela eta segurtasun indarrek etengabe kontrolatzen dituztela, Global Witness nazioarteko era-kundeak bere azken txostenean salatu zuenez.

Inpunitatea da Hondurasko egoera negargarriaren ezauga-rrietako bat. Herritarren Esku Hartzearen Aldeko Elkarteak sa-latu du Hondurasen izaten di-ren erailketen eta ekintzaileen giza eskubideen aurkako bor-txaketen %90 argitu gabe gera-tzen direla. Zentzu horretan, Ba-jo Aguan izeneko eskualdea da eremurik okerreana. 2010etik 2013ra konpainia handien eta horien segurtasun pribatuko in-darren aurka ari ziren 82 neka-zari hil zituzten. Meatzaritzak ere protesta eta istilu ugari era-giten ditu Hondurasen. Azken urteotan gutxienez lau ekintzai-le hil dituzte. Gauza bera, neurri txikiagoan bada ere, Erdialdeko Amerikako beste herrietan ere gertatzen da. Egile batzuek ida-tzi dute «Latinoamerikaren bi-garren konkistaren aurrean gau-dela», baina oraingoan konpainia multinazionalak dira konkistatzaile modernoak, eta krimen antolatua haien morroi. Eta estatu ustela horiei lagun-tzeko dago.

Jatorrizko herrie-kin batera, egoeraren bik-tima izaten dira komunitate beltzak eta nekaza-riak. Konpainia handiek aginta-riak usteltzen dituzte (maila guztietakoak), eta komunitate horietako buruek aurre egiten dietenean, kartzelara sartzen di-tuzte, hiltzen ez dituztenean.

Daniel Pascual Hernandez
Guatemalako CUC Nekazarien
Batasuneko Batzordeko
koordinatzailea.
GAUR8

EKINTZAILEEN KRIMINALIZAZIOAREN NAZIOARTEKO SALAKETA

Bertha Caceresen aurkako eraso-a gertatu zen unean nazioarteko makina bat parlamentari, sindikalista, kazetari, ekintzaile, irakasle eta idazle Guatemalan giza eskubideen aldeko ekintzaileek jasaten dituzten kriminalizazio prozesuak salatzen ari ziren. Mugarik Gabe erakundearen agiri batek esplikatzen duenez, Rigoberto Juarez eta Domingo Baltazarrek ia urtebete egin dute dagoeneko preso prebentibo moduan, eta iaz adierazpen askatasunaren aurkako eraso larri bat salatu zuten (Francisca Gomez irakaslea auzipetu zuten zementu konpainia baten inguruko iritzi artikulua bat idazteagatik). Orain, berriz, Daniel Pascual Hernandez CUC Nekazarien Batasuneko Batzordeko koordinatzailea da multinazionalen konplizeen bik-tima. FCT Terrorismoaren Aurkako Fundazioko presidenteak (zenbat gustatzen zaien “terrorismo” hitza aberatsenen bazter guztietako lagunei!) gizartean gatazkak eragitea leporatu zion Pascuali, eta ondoren CUCekoak eraso bat jasan zuen. Daniel Pascualek orduan egin zituen adierazpenen harira, FCTko buruak salaketa aurkeztu zuen epaitegian. Beraz,

erasoa jasan duena dago epaileei esplikazioak eman beharrean. «Kasu horrek garbi adierazten du, Guatemalako jatorrizko herriek eta giza erakundeek salatu moduan, justizia ez dela guztientzat berdina, bakarra, eta herrialde horretan indigenak beti susmagarriak direla, beraiei errugabetasun presuntzioa ez zaiela aplikatzen», Mugarik Gabekoen hitzetan.

Pascualek berak Erdialdeko Amerikako ekintzaileek jasaten duten errepresioak gora egin duela salatu zuen Caceresen heriotzaren berri izatean, azken urteotan ehunka lagun hil baitituzte herrialde horietan. Bere ustez, Caceresen aurkako eraso-a ekintzaileei bidalitako mezu zuzena da. Gobernuaren «erantzukizuna» nabarmendu zuen, Caceresen segurtasuna bermatzeko gauza izan ez zelako. «AEBek ere badute erantzukizunik», erantsi du. Washingtonek aliantza bat osatu du Guatemala, El Salvador eta Hondurasekin narkotrafikoa ahuldu eta migratzaile kopurua murrizteko, eta 750 milioi dolar ipini ditu. «Ez dute nahi duten hori lortuko, giza eskubideen garapena bermatu gabe», adierazi du Pascualek berak.



ERDOGANEN BARNE ETSAIA

Gobernuak Fethullah Gulen erlijiosoaren mugimenduko komunikabideak itxi ditu

MUNDUA / Miguel FERNANDEZ IBAÑEZ

Urte hasieran hasi zen Ameriketako Estatu Batuetan erbesteratuta dagoen Fethullah Gulen erlijioso musulmanaren aurkako epaiketa. Turkiako Fiskaltzak gobernuaren aurkako konplota egotzen dio, AKP alderdiko goi karguak, Recep Tayyip Erdoganen semea tartean, zi-priztintzen dituen ustelkeria trama salatu zuenean gauzatu-takoa hain zuzen.

Erdogan Turkiako presidentearen aspaldiko kidea da Gulen. Hizmet mugimendu erlijiosoko agintaria da. Espainiako Opus Dei indartsuarekin aldera daitekeen erakunde horren jarraitzaileak ehunka milaka dira munduan zehar. Fiskaltzak bizi arteko kartzela zigorra eskatu du Gulenentzat. Estatu Paraleloa Gulenen jarraitzaileen Erakunde Terrorista (FETO, turkiar siglatan) ustez osatzeagatik akusatutako dozenaka pertsonentzat, berriz, 300 urteko zigorrak eskatu ditu fiskaltzak. 1998tik Pennsylvaniara ihes egin zuenetik, baina, AEBetan erbesteratuta dago Gulen, Turkiak bere estradizioa eskatu dion arren Etxe Zuriari.

Erdoganen AKPre eta Gulenen arteko harremana ulertzeko hainbat puntu hartu behar dira kontuan. Batetik, XX. mendean Anatoliako musulmanek Turkiako Estatuaren partetik jasan-dako bazterketa. Bestetik, militarren aurka AKPk eta Hizmet mugimendua hitzartutako akordioa, eta, azkenik, Erdogan eta Gulenen arteko borroka pertsonala.

«ULTRASEKULARISMOA»

Lehenik eta behin, «ultrasekularismoa» zer izan zen jakitea komeni da. Gulen Fundazioko zuzendaria den Dogan Koc berak horrela laburbildu digu posta elektronikoko bidez: «Turkiako ultrasekularismoa laikotasun frantsesaren degenerazio bat baino ez da, eta herrialdean nagusitu egin zen, gutxiengo baten apustua bazen ere». Bere hitzetan, ultrasekularismoa

Fethullah Gulenen mugimendu erlijiosoak Turkiako Poliziaren eta epaileen artean zuen oihartzuna ahuldu ostean, bere jarraitzaileen aurkako sorgin-gerrak ez du etenik. Mugimenduaren komunikabideetarako ere iritsi da erasoaldia. «Zamat» egunkaria itxi egin du Erdoganek, lasai asko gainera, hil ala biziko gerra horretan.



kemalismoa da, 70eko hamarkadara arte nagusitu zen apartheid-a hain zuzen; erlijio kon-tuetan eta hezkuntzan –erlijio eta hezkuntza ezan hobeto esanda– oinarritzen zen siste-ma. «Ez zioten uzten euren aldekoa ez zen inori Estatuan parte hartzen. Esparru itxia zen. Turkiarren gehiengoa nekazaritza eremuetan bizi zen, elite ultra-sekularistaren menpe, politikan eta ekonomian parte hartu ahal izateko adina heziketarik gabe».

70eko hamarkadatik aurrera, musulmanen aurkako jazarpe-na arindu zenean, Gulen bere ikuspegi islamista hedatzen hasi zen, Said Nursi pentsalariaren ideiak bere eginda. Urte gutxi-ren buruan milaka jarraitzaile lortu zituen, batez ere bere argitaletxei eta dershane izenare-kin ezagunak egin ziren hezkun-tza zentroei esker. «Herrietatik hirietara lan bila joan zen Tur-kia kontserbadoreari erantzun zion Hizmet mugimendua. Tradizioa eta modernitatea uz-tartzen asmatu zuen, hirietako bizimodu sekularrekin lehe-nengo aldiz topo egin zuten anatoliarren mesedetan», azal-zen du Koc berak.

AKP alderdiak 2002an hautes-kundeak irabazi ondoren, Hiz-met mugimendua indartu egin zen eta bere jarraitzaileak Esta-tuaren bihotzean sartu zituen. «Islamismo moderatuaren» urrezkoa aroa zen eta Obama AEBetako presidenteak berak erreforma demokratikoak ezar-tzeagatik txalotu zuen Erdogan.

ASPALDIKO KONTUAK

Islamistak, baina, euren aspaldi-ko etsaiekin, militarrekin, zituz-ten kontuak kobratzeko irrika bizian zeuden. Ergenekon eta Sledgehammer auziei esker, fro-ga handirik gabe, Armadako goi karguak kartzelan sartu zituz-ten, ustez estatu kolpe bat pres-tatzen ari zirelakoan. 2011rako Gulen-Erdogan bikoteak Arma-daren influentziarekin behingoz amaitzea lortua zuen eta, AKPk Parlamentuan gehiengo osoa berretsi berritan, bi buruzagien arteko borroka abiatu zen. Or-durako, Hizmet mugimendua oso indartsua zen gizartean be-

re karitate sareari eta dershane eskolei esker. Auzitegiak eta Polizia kontrolpean zituen eta tarta politikoaren bere zatia exijitzen hasi zen. Erdoganek, baina, mugimendua bere botere politikoa sendotzeko erabili ondoren, bestelako asmoak zituen. Horren erakusle, mugimenduaren enpresei Estatuaren proiektu mamitsuak esleitzeari utzi zion.

Bi buruzagien arteko harremana, hori bai, kurduen auziaren inguruko desadostasunek gaiztotu zuten behin betiko. 2012ko otsailean, Gulenen aldeko Sadrettin Sarikaya fiskala MIT Turkiako zerbitzu sekretuetako goi karguak atxilotzen saiatu zen, tartean Hakan Fidan zuzendaria, Oslon PKK erakunde kurduarekin ezkutuan hitz egiteagatik. Traizioa leporatzen zien fiskalak zerbitzu sekretuei, eta, krisi horren ostean, Parlamentuak Konstituzioa aldatu zuen «terroristekin negoziatzea» ahalbidetuz.

HEZKUNTZAREN AUZIA

Gulenen erasoa gairadituta, erasotzea erabaki zuen Erdoganek. Horretarako, Hizmet mugimenduaren diru-iturri nagusia eta bere ideologia hedatzeko tresna nagusia kolpatzea besterik ez zuen: hezkuntza. Familia kontserbadoreek nahiago zuten seme-alabak Gulenen eskoletara eramatea Estatuaren instituzio sekularretara baino. Bertan lortzen zituzten erlijioso sunitik jarraitzaileak, karitatea, ekimen sozialak eta behartsuentzako laguntza ekonomikoak erabiliz. Gainera, dershane eskoletan ikastea lan ona aurkitzeko bidea zen. Egun, estigma bilakatu da.

2013ko irailean, eskola erlijiosoak bultzatzen urteak eman ondoren, Gobernuak Gulenen dershane eskolen itxiera iragarri zuen. Bazekien Erdoganek non jo eta nola min eman. Gulenen jarraitzaileak mugimenduaren egoitzetan bizi ziren. Bertan, Koran erraldoi baten begiradapean erakundearen egunkariak, liburuak eta Gulenen sermoiak irakurriz hazten ziren. Eskola urteetan giro horretan sortutako harremanak, noski, oso indartsuak ziren, batez ere baliabi-



Aurreko orrialdean, Erdoganen eta Gulenen argazkiak eta «Zaman» itxitako egunkariaren lehen orriak. Lerroon gainean, Turkiako presidentea inaugurazio ekitaldi batean. AFP

derik gabeko gazteentzat. Izan ere, horrek izugarritzko lotura sortzen zuen, mugimenduarekiko nolabaiteko idatzi gabeko zorra.

GERRA TOTALA

Gulen ez zen geldirik geratu. Abenduan, Parlamenturako hauteskunde bezperan, bere aldeko fiskalek AKPren buruzagitza kolpatu zuten ustelkeria auzi bat baliatuta. Ergenekon auzian militarrek ehizatu zituen Zekeriya Oz fiskalak zuzendu zuen ikerketa. Erdogan alderdia ez zen geldirik geratu: Justizia Administrazioetik eta Poliziatik gulenistak purgatzen hasi zen. Gulenistek AKPren barne elkarriketak argitaratuz erantzun zuten; horietako batean, Erdogan eta bere semea ageri ziren komisio izugarri baten inguruan hitz egiten.

Ustelkeriak ustelkeria, Ergogonek 2014an presidentetzarako hauteskundeak irabaziz erantzun zuen, baita Parlamenturako ere 2015ean. Zekeriya Oz eta Sadrettin Sarikaya fiskalek Alemaniara ihes egin behar izan zuten, beraiek eratzeko lagundutako sistemaren «injustizia» salatuz. Beraiek dira orain sorginak. Erdogan, berriz, beti ehiztari. Gulenen «mugimendu terroristarekin» iraganean izandako harremana gutxietsi asmoz, Ergenekon auzia ere gaizki kudeatu zela iritzi berri du Estatuak eta militarrek kartzelatik ateratzen hasi da.

KOMUNIKABIDEEN AURKA

Azken erasoa Gulenen aldeko «Kopa Izek» eta «Zaman» taldeko komunikabideen itxiera eta hainbat enpresaren atxiloteta izan da. Gainera, Hizmet mugi-

menduak Asia Erdialdean zituen eskolak itxi ditu eta Afrikan ere berdina gertatzea espero da. Erdogan mendekua ez du mugarik. Espetxean zeuden dozenak gulenista askatzea erabaki zuen Ozelik epailea bera kartzelatu du. Bere emazte medikuak lanetik bota dutela salatu du, eta, «Zaman» itxitako egunkariaren arabera, semea haurtzaindegitik ere kaleratu zuten.

«Datozen urteak gogorak izango dira. Orain enpresariak dituzte jomugan», ohartarazi du Dogan Koc berak. Izan ere, luzea da Gulenen jarraitzaile ezagun eta ahaltsuen zerrenda, tartean Enes Kanter NBAko pibota edota Hakan Sukur futbolari ohia. Ez dirudi Erdoganentzat erraza izango denik Opus Dei beraren antza duen Hizmet sarearekin amaitzea, baina egia da tematia dela eta gauza bat buruan sartzen zaionean... Oraingo argi dago Hizmet mugimendua suntsitzea helburu duela, PKKrekin eta Sirian Al-Assaden Gobernuarekin amaitzea ere xede dituen bezala. Ikusteke dago asmo guztiok gauzatuko dituen edo ez...

Hizmet mugimendua behin betiko suntsitzea du helburu Erdogan tematiak, baina ez dirudi samurra izango zaionik Opus Dei beraren antza duen sare erraldoiarekin amaitzea



Unai Fernández de Betoño - UnaiFdB
Arkitektoa

«Bilbao Bizkaia» marka

Aho bete hortz irakurri dut martxoaren 4ko le-
rroburu bat: «Herri hau abiadura handiko tre-
narekin zigortu dute». Harridura ez dit baiez-
tapenak sortu, baizik eta zeinek bota duen:
Juan Maria Aburto Bilboko alkateak! Sinetsi
ezinda, adierazpenaren bideoa bilatu dut, Espai-
niako enpresaren munduko ustezko eliteak osatutako Nueva
Economía Forum *lobby*-aren gosari-hitzaldian. Berehala
egiaztatu dut esaldia testuingurutik kanpo atera dutela ka-
zetariek, Aburtok benetan aditzera eman duena «herri hau
abiadura handiko trenik gabe zigortu dute» baita. Gauzak
bere lekuan. Koaderno gorritik gehiegi atera gabe.

Bilboko alkatearekin batera, Rementeria Bizkaiko ahaldun
nagusiak ere parte hartu du hitzaldian. Bilbao eta Bizkaia.
Hitzaldian "Bilbao Bizkaia" lurralde-marka azpimarratu dute
bi jeltkideek. "MyBilbaoBizkaia" da, hain zuzen ere, 2009tik
saldu nahi duten produktu turistikoaren izen komertzialeta-
ko bat. 2010ean "Bilbao Guggenheim ++" ere erabili zuten,
Sanghaiko ez-dakit-zer erakusketa *supergarrantzitsu* batean.
2011n "Bilbao Bizkaia Next" ere proposatu zuen hiri-marketi-
naren izar Alfonso Vegarak, baita haren tokiko dizipulu izan
nahi duen Andoni Aldekoak ere, orain Urkulluren aholkulari
dabilena. Aburtok "Bilbao 30" ere aipatu du hitzaldian, Bil-
boko erdigunetik 30 minutuko distantzian ibili (gidatu) dai-
tekeen lurraldea adierazteko. Alegia, *city branding*-aren ide-
ologoei Bilbo txiki gelditu zaie mundu-mailan lehiatzeko, eta
inguruak ere propagandistikoki fagozitu, birbataiatu eta era-
bili nahi dituzte.

Bilbotik oso gertu egon arren, hala ere, Ezkerraldeko udale-
rriak irakurketa megalomano hauetatik alde batera uzten
dira behin eta berriro. Zenbaitetan «Bilbao Bizkaia» marka-
ren erabileraren zeharkako onuradun ere izan arren, orain-
dik periferiatzat jotzen dira Santurtzi, Portugalete edo
Sestao; erdiguneko Bilbao Ekintza erakunde publikotik,
bederen. Eusko Legebiltzarrean, ordea, erdi ahaztutako es-
kualde hori suspertzeko batzorde txostengile interesgarria
jarri zen abian pasa den 2015ean, EH Bilduren ekimenez. Ez-
kerraldea eta Meatzaldea sozioekonomikoki berpizteko onu-
ragarria izango da Bilbo-efektua, neurri batean, baina uste
dut Guggenheimaren distiraren arrastoa jarraitzen saiatu
baino, edo saiatzeaz gain, eskualde horren garapen endoge-
noaren alde ere apustu sendoa egin behar dela administra-
zio publikotik.

Garapen endogenoa. Erraza da esaten, zaila egikaritzen.
Baina hiriburuen protagonismo azpiratzaile geldiezinak
nazioartera begira dauden honetan, edozein hirigintza-
erabaki epe motzeko turista-hotelen erreserba-kopuruan
justifikatuz, inguruko eskualdeek epe luzeko tokiko begira-
da zorroztu behar dute. Gertuko ekonomia-sarean txertatuta-
ko industria sustatuz, landa eremuko berezitasunak indartuz,
natura-espazio degradatuak berreskuratuz, tokiko nekazaritza
eta energia sortzea bultzatuz... Alegia, burujabetza maila guz-
tietan suspertuz, Luxenburgon egoitza duten enpresen menpe
gehiago ez egotea helburu. Hiriburu handiaren itzalpean seku-
lako potentziala dagoelako. •

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:



ILUSTRAZIOA: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Lehentasun hartuta, zaindu dezagun Arnaldo Otegi

Bildu ziren jende oldeak eta zarra-zarra jardun zuen euria medio ezin izan nuenez, aukera aprobetxatu eta bihoakio letrokin batera lagunari eta kideari –eta baita etxekoei ere– besarkada termiko eder-ederra. Bai, puntua botata denez, Arnaldo Otegiren askatzeak eta oholtza politikoaren erdigunera bueltatzeak suposatu duen fenomeno sozial eta emozionalaz arituko naiz. Eta aurrera begira, hausnarketa pertsonal gisa, lagun moduan, ohartxo batzuk eskaini nahi ditut.

Dagoeneko asko idatzi da Otegiren presentziak eragin dituen ondorioez. Ezkerreko abertzaleentzat suposatu duen errekupeazio emozionalaz, anbizioaren berrarmatzeaz, Euskal Herrian sumatu den elektrizitate horrek duen energia askatzaileaz. Egiatik asko duela ukatzeke, hiperboleak hiperbole –energia nuklearra baztertzeke lain indar sortu duela eta abar– eta Otegiren aurkarien purrastak purrustategi, niretzat, errekupeazio horren zantzuak aurretik igartzen hasiak ziren. Beste tonu bat sumatzen hasia zen, beste fundamentu bat, espabilitzen hasiak ginelakoan nengoen. Datuak bazeuden, bai. Otegiarekin, jakina, sentsazio hori baieztatu eta disparatu egin da. Badaude ere oso ongi ulertu ez ditudan kontutxoak, batez ere, “The New York Times” tarteko aireratu den lehendakari izateko hautagaitzaren kontu morboso horrena. Otegi horretarako eta bost gai ikusten dudala esanda, kontraindikazioak ere askotxo badaudela aitortu behar dut, eta beste patxada batean, pedagogia egokian, herriarekin artikulatu behar den elkarrizketa baten baitan ebatsi beharreko gaia dela uste dut.

Tira, Arnaldo Otegi animalia politiko totala da. *Crack* bat da, eta hain zuzen horregatik, asko zaindu beharreko aktiboa da, gehiegi esplotatu behar ez dena. Bizitza natural eta erosoa ongi merezia eta beharrezkoa du, ohikeria informatiboaren gurgil-zoroan kateatzeke, zaletasunak, osasuna eta bere barne-erresumakoak atenditu behar ditu. Oratoriaren maisua delako, ezinbestekoa du isiltasunaren artea jorratzea, hitzekin bezala hitzik esan gabe jakitera ematea. Berak ongi adierazi bezala entzule aparta izatea, euskal jendearen eta gertakizunen behatzaile zorrotza izatea, hausnartzeko denbora hartzea, aldaketa eta

korronte sozial karstikoen norabideak egoki irakurtzea. (Auto)zaintza lan hori lehentasunezkoa da, kanpoko kontrolatzeko bere tenperamentu bolkaniko hori gehiegi ez zamatzea, barne mundua gobernatzeko astia errespetzea. Berari lana kentzea eta ez ematea.

Otegiren karisma ez dut orain deskubrituko, ezta haren energia ere. Egoera oso zailetan onduriko esperientzia, xarma, inteligentzia emozionala, kuraia, nortasuna, anbizioa, leialtasuna... hori guztia badu, bai, horixe baietz! Baina hori baino gehiago ere bai. Deigarria izan da, eta etorkizunari begira pista emailea, “gurea” ez den jendeak, ezker abertzalearen komunitate militantea baino haragokoak, euskal gizartearen (eta munduko sektore uste baino zabalagoetako) maila guztietako jendeak dion errespetu, miresmen eta estimua ikustea. Otegi ezker abertzalekoa da eta ez da, ezkerreko herri abertzalearena ere badelako. Herrikide askorentzat lider ameslaria da,

Deigarria izan da, eta etorkizunari begira pista emailea, «gurea» ez den jendeak, komunitate militantea baino haragokoak, gizartearen maila guztietako ordezkari denak dion errespetu eta estimua ikustea

komandanteburu edo lehendakari izateko jenioa baduena; oso argia eta urrutikoa den begirada inspiratzaile bat.

Beharko du Otegi abildade horri guzti horri zirkuitu-laburra egingo ez dion kultura politikoa, antolakuntza, diseinatu eta sustatzea. Betiko balore, bisio eta konbikzioak iraunaraziz, itxuraz ezberdinak baina harremanean banaezinak diren bi konfigurazio ezberdinetan zentratuz, bietan jarrai, koherentzia bati eutsiz: helmugetan eta helburuetan, zoom handiko ideietan eta zoom txiki-konkreteetan asmatuz, estatu-politikari eta politikaren militante izaten, sakona eta praktikoa, arkitektoa eta iturgina, ideia futuristak eta oraingo ekintzak ezkontzen. Emozionatu nau, ikaragarri, bera emozionatuta ikusi eta besteak nola emozionatzen dituen ikustea. Emozionatu eta emozionatzea, horra hor gakoa. Pasioz eta anbizioz independentzia bizi eta irabaztea. •

IKASLEEN GHETTOAK

Samiraren kasuak agerian utzi du eskola batzuetan ematen den «ghettifikazioa»

 JENDARTEA / Ion Salgado

Azken urteotan jatorri atzerritarra duten ikasleen kopuruak gora egin du nabarmen sare publikoko eskoletan. Marokotik Gasteizera etorritako Samirak semea itunpeko ikastetxe batean matrikulatu nahi zuen, baina guztietan ezetz esan diote. Eskolon erantzunek Gasteizen ematen den diskriminazioa agerian utzi dute.

Nola berma daiteke etorkinen seme-alaben gizarteratzea bertako familiaren seme-alabekin ikasten ez badute? Nola erabiliko dute euskara beraien

inguruan arabiarra edo beste hizkuntzaren bat bakarrik entzuten badute? Nola sentituko dira euskal herritar txikitatik diskriminazioa pairatzen badute? Askotan egin dizkio galdera horiek Samirak bere buruari. Askotan pentsatu du nola izan-

go den bere semeen etorkizuna jatorri atzerritarreko umeekin betetako eskoletan ikasiz gero, ghetto bilakatu diren ikastetxe publikoetan ikasiz gero.

Duela hainbat aste, Marokotik etorritako emakume honek itunpeko sareko eskolak bisitatu zituen aurrematrikulazioa egiteko asmoz. Bost ikastetxetara joan zen, hiru kristauak eta bi laikoak. Eta guztietan erantzun berdina jaso zuen. «Guztietan ezetz esan zidaten. Batzuetan musulmana izateagatik, eta besteetan haiek ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik. Eta batzuek kuotak ordaindu behar zirela ere ohartarazi zidaten», gogoratu du. Ez zioten galdetu ere egin baliabiderik bazuen eta ez zioten eskaini erlijioaren ordezkio irakasgai alternatiborik.

Baina kuotak eta erlijioa ez dira Samirak gainditu beharko lituzkeen oztopo bakarrak, berak salatu duenez, itunpeko eskolek eurek aukeratzen baitituzte ikasleak matrikula egiterakoan, puntuen sistemari esker. «Aitonak, amonak edo beste senide batek ikastetxe horretan ikasi badu puntuak ematen dizkizute, eta Eskola Kontseiluan parte hartzen baduzu ere puntuak jasotzen dituzu. Sistema diskriminatzailea da, lotsagarria», deitoratu du. Egoera horri aurre egiteko, Steilas sindikatuaren atea jo zuen. Baita bilatzen zuen laguntza jaso ere.

Aitor Idigoras sindikatuko kideak ondo ezagutzen du Samirak bizi izandako diskriminazioa, askotan salatu baitu eskola publikoaren eta itunpeko sarearen arteko ezberdintasuna. «Sistema duala sortu da, ikasleen klase sozialaren arabera sistema duala, hain zuzen», azaldu du. Aitor Idigorasen ustez, goi eta erdi mailako familietako seme-alabak itunpeko ikastetxetara joaten dira, eta diru gutxi duten familietako seme-alabak eskola publikoetara. «Eskola publikoak jatorri atzerritarra duten ikasleez beteta daude gaur egun, baina, azken batean, klase gatazka bat da Gasteizen eta EAEko beste udalerrietan ematen ari dena», azpimarratu du.



Jatorri atzerritarra duten ikasle gehienek sare publikoko eskoletan ikasten dute. Hezkuntza eragileek ghettoak sortzen ari direla ohartarazi dute. Raul BOGAJO | I.A.PRESS

Eskola publikoek eta itunpeko sarekoek ikasle ezberdinak eduki arren, finantziario iturri berdina dute: Gasteizko Gobernua. «Herritar guztiek nahi duten eskola aukeratzeko eskubidea izan beharko lukete, eskola guztiek diru publikoa jasotzen dutelako. Eta Samirak berak ere finantzatzeko ezetaz esan dioten itunpeko eskolak», azaldu du Idigorasek hezkuntza berezitua herritarren pentsaeran ezarrita dagoela kritikatu ostean. «Konponbidea lortzea ez da erraza izango, jende askoren pentsamoldea aldatu beharko dugulako», gaineratu du.

«GASTEIZKO MANIFESTUA»

Baina, egia esateko, badirudi gauzak aldatzen ari direla pixkanaka. Herritarrek nabaritzen dute Idigorasek aipatutako desoreka, azken hamarkadan areagotu egin dena. Denon Eskola

Samira bost ikastetxetara joan zen, hiru kristauak eta bi laikoak. Eta guztietan erantzun berdina jaso zuen. «Guztietan ezetz esan zidaten», salatu du emakume marokoar honek

Aitor Idigoras Steilas sindikatuko kidearen ustez, sistema duala sortu da hezkuntzan. Goi eta erdi mailako ikasleak itunpeko sarera joaten dira, eta, gainontzekoak, sare publikora

federazioak otsailean salatu zuenez, 2010ean atzerriko jatorria zuten ikasleak EAEko hamar eskola publikotan ziren ikasleen %50. Sei urte geroago, ehuneko hori 60 ikastetxe publikotan gaintitzen da. 2016ko urtarrilean Hezkuntza Ordezkaritzak plazaratutako datuen arabera, Gasteizko hogeitazik hainbat gelatan atzerriko jatorria duten ikasleak %30 baino

Samirak ezin izan du matrikulatu bere semea itunpeko ikastetxe batean.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

gehiago dira. Lau eskolatan %80tik gora dira, eta, beste hiritan, %50etik gora.

Hainbat eragile –Arabako Guraso Elkartearen Federazioa, Ehi-ge, Sarean, Steilas, CCOO, UGT, LAB, ESK, ELA, Afro elkarte, CE-AR, Salhaketa eta Gasteiz Irekia, besteak beste– batu egin dira egoerari aurre egiteko, eta “Euskal eskola publikoaren aldeko manifestua” argitaratu dute. Testu horretan sare publikoaren eta itunpekoaren arteko «desoreka ikaragarria» kritikatu dute. «Sare publikoa jasotzen ari da gehienbat zailtasun handienak dituen populazioa, batez ere jatorri atzerritarra duten ikasleak; itunpeko sarea, al-diz, aterpe bihurtzen ari da bertako erdi edo goi mailako familia askorentzat», salatzen dute.

Eragileon iritziz, zentro batzuek «bizkarra eman diote Gas-

teizko errealitate sozial zailari». «Gure ustez segregazio prozesua negatiboa da eta ez du errazten gizarte kohesionatu eta solidario bat izatea, baizik kontrakoa. Ikasleak gelaka banatzea kontuan hartuta azalaren kolorea, jatorri etnikoa, klase soziala edo erlijioa zorigaitzoko oinarria da gizarte bidezkoago eta kohesionatuagoa lortzeko, izan ere, aniztasuna aberastasun elementua izan beharko litzateke».

«Maltzurra da hezkuntza arloan jatorri atzerritarra duten ikasleak eskola gutxi batzuetan taldekatzea. Ez da mesedegarria elkar ezagutzeko, ezta integrazioa lortzeko ere; ez da lagungarria aniztasuna modu positiboan bizitzeko. Kontzentratu egiten dituzte behin-behineko heziketa behar bereziak eta baliabideak behar dituzten ikasleak. Eta administrazioak ez die baliabide



SEGREGAZIOAREKIN AMAITU ANIZTASUNA SUSTATZEKO

Xabier Muntiel eskola bateko zuzendaria da eta ondo ezagutzen ditu jatorri atzerritarra duten umeen eskolatzeko prozesuen zailtasunak. «Gaur bertan etorri da ume bat Pakistanetik. Lehen Hezkuntzako 4. mailan dago eta ez du ez euskaraz ez gaztelaraz hitz egiten», azaltzen du. Muntielen ustez, faktore ugari daude atzerritatik etorritako familien seme-alabak ikastetxe publikoetara joateko. «Itunpeko eskoletan erlijioa ikasten dute, eta hori oztopo bat da Afrikako iparraldetik eta Asiatik etortzen diren familientzat. Eta kontuan eduki behar dugu atzeritik etortzen diren familia gehienak behe mailakoak direla; behartuta etorri dira, haien egoera ekonomikoa hobetzeko asmoz, eta, kasu askotan, ezin dituzte ordaindu itunpeko ikastetxeak ezartzen dituzten kuotak», azaldu du.

Horregatik, atzeritik etorritako familiek eskola publikoetan matrikulatzen dituzte euren seme alabak, ghetto bilakatzeko arriskua pairatzen duten zentroetan. Arazoa ez baita soilik jatorri atzerritarra duten umeen kontzentrazioa gero eta handiagoa izatea, benetako arazoa bertako ikasleak itunpeko eskoletara joaten ari direla da. Eta Muntielek nabarmentzen duen bezala, kulturartekotasuna lortzeko, ume guztien integrazioa lortzeko, beharrezkoa da eskola publikoetan bertako ikasleak ere egotea.

Berdintasuna eta aniztasuna lortzeko, Muntielek matrikulazioa kudeatzeko bulego bakarra sortzea proposatzen du. Eta itunak betetzen ez dituzten eskolei finantzazio publikoa moztea ere defendatzen du. «Eskola batean jarrera segregazionistak ikusten baldin badira, diru laguntzak moztu egin beharko lirateke», azpimarratu du eskola zuzendariak.



nahikorik ematen erronka horri erantzuten dioten eskolei», diote sinatzaileek.

Erantzun zehatzak proposatzen dituzte arazoa konpontzeko. Proposatutako neurriek epe kanpo matrikulatzen diren ikasle gehienak ikastetxe publiko batzuetara ez bideratzea eta segregazioarekin amaitzea dute helburu. Eragileon ustez, giza baliabideak, baita ekonomikoak ere, sustatu behar dira heziketa zentroek erronkei erantzun bat emateko. «Egoerarik txarrean dauden edo heziketa behar bereziak behar dituzten ikasleak eskolaratzen dituzten eskolek baliabide gehiago, baita ekonomikoak ere, izan beharko lituzkete», azaltzen dute.

Eta, matrikula egiteko orduan, errenta baxuak dituzten familiak lehenesten dituen baremoa indargabetu behar dela nabarmentzen dute, izan ere, «horrek

maila ertaineko familiak zentro publiko batzuetatik kanpo uzten ditu. Eskola publikoaren bokazioa mota guztietako familien eskola izatea da, eta gure ustez positiboa da maila desberdinetako familiak egotea zentro berean».

Zentzu horretan, administrazioak ekitatea bermatzen duten matrikulazio irizpideak bete-arazi behar dituela nabarmen-

Cristina Uriarte EAEko Hezkuntza sailburuak Gasteizen sortutako arazoa konplexua dela nabarmendu du.
Juanan RUIZ I ARGAZKI PRESS

Gasteizko hainbat eragilek «Euskal eskola publikoaren aldeko manifestua» sinatu dute. Segregazioarekin behingoz amaitzea eskatzen diete Lakuako Gobernuko ordezkari

Manifestua sinatu duten sindikatuek eta eragileek matrikulazio bulego bakarra aldarrikatzen dute EAEko eskoletan ematen den diskriminazioarekin amaitzeko

eta laikotasun baldintzetan». Halaber, irakasleen lan egoera hobetzea, haien behin-behinekotasunarekin amaitzea, exijitzen diote Lakuari, baita plan estrategiko bat aurkeztea ere. Aipatutako plan horretan finantziario publikoa jasotzen jarraitu nahi duten zentro guztiek parte hartu beharko lukete.

«Aniztasun kulturalako beste testuinguru batzuetako esperientziak erakutsi dute beharrezkoa dela politika aktiboak bultzatzea zentro guztietan jatorri, egoera edo izaera anitzeko ikasleak egoteko. Egoera zailean dauden ikasle kopuru handiak dituzten eskoletan beharrezkoa da kalitate handiko proiektuak garatzea, baita espektatiba handiko eskolak sortzea ere; ondorioz, ahalbidetu egingo da maila sozioekonomiko eta kultura desberdinetako ikasleak elkartzea», azaltzen dute manifestuan, erlijioa norberaren bizitza pertsonalaren kontua dela adierazten duen testuan hain zuzen.

URIARTEREN AGERRALDIA

Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak hitz egin zuen Eusko Legebiltzarrean manifestuaren argitalpenaren ondorioz. Uriartek Gasteizko Gobernu diskriminazio mota ororen kontra dagoela adierazi zuen, «edozein delarik arrazoia. Eta jakina, gure esku dagoen guztia egingo dugu hezkuntzaren eremuan gerta litekeen edozein diskriminazio saiakera saihesteko». «Horregatik, ikastetxeren batean matrikula egiterakoan, izan ikastetxe publikoa edo itunpekoa, diskriminazio egoeraren bat jasan duen pertsona oro bide ofizialak erabiliz gertatutakoa jakinaraztera animatu nahi dugu. Horixe da arazoak antzeman eta konponbideak eskaintzeko bide egokia», esan zuen Samirak «kexa formal» ez duela egin ohar-tarazi ostean.

Samirak GAUR8ri azaldu zioenez, ez du kexa formalik aurkeztu diskriminazioa ez delako berari bakarrik eragiten dion arazo bat. Emakume honek konponbide orokorra nahi du, haren egoeran dauden familia

tzen dute sinatzaileek, eta matrikulazio bulego bakarra sortzea proposatzen dute. Bulego horrek itunpeko sareko ikastetxeen eta eskola publikoen eskaintza batu beharko luke. Horrela diskriminazioa saihestuko litzateke. Dena den, manifestua sinatu duten eragileek azaltzen duten bezala, berdintasuna lortzeko beharrezkoa da baliabide gutxi duten familiei eskola batzuetara joan ahal izateko jartzen dizkieten oztopoak bertan behera uztea, kuotak edo eskolaz kanpoko gastu jakin batzuk, esate baterako.

Azken finean, «irakaskuntzaren doakotasuna legez bermaturik dago diru publikoarekin finantzaturako zentro guztietan. Gasteizko ikastetxe guztiak diru publikoz finantzaturik daude ehuneko ehunetan, beraz, familia guztiek eskubidea dute zentro guztietara joateko dohainik

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak gaur egungo egoera «konplexua» dela eta ekimen berriak martxan jarriko direla iragarri du Gasteizko Legebiltzarrean

Denon Eskola federazioko kideen ustez, Uriartek proposatutako ekimenak ez dira nahikoa Gasteizko eskoletan pairatzen den arazoa konpontzeko

guztientzat. Eta badirudi Lakua konponbide bat bilatzeko prest dagoela, izan ere, «gure ikastetxeetan kohesio sozial handiagoa eta bizikidetzat sustatzeko lanean» jarraituko dutela iragarri zuen sailburuak. Aztertzen ari diren neurrien artean, eskolatze batzordeen irizpideen beraztertzea eta erakundeen arteko elkarlana sustatzea aipatu zituen Uriartek, Gasteizen sortutako gatazka arazo hutsala ez dela nabarmenduz.

Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Manifestuaren Batzorde Dinamizatzailea osatzen duten eragileek «lorpentzat» hartu zituzten Uriarteren hitzak. «Gobernuak, edozein kasutan, itunpeko eskoletan ematen den jarrera baztertzailaren ebidentziarik ez duela esaten du. Guk badaudela uste dugu eta salatu behar ditugu, Eusko Jaurlaritzak diru publikoz finantzatzen baititu ikastetxeak», azaldu zuten, Lakuak itunpeko sareko zentroei 380 milioi euro baino gehiago eman dizkiela gogoratuz. «Diru hori gabe ikastetxeotako familiek ordaindu beharreko kuotak askoz handiagoak lirateke». Aipatutako batzordea osatzen duten eragileei hileroko kuotak kobratzea «diskriminatzailea» iruditzen zaie, «horrela diru publikoz finantzatutako ikastetxeetako ateak baliabide gutxi dituzten familiei ixten zaizkielako». Halaber, bi urteko haurrentzako geletan 200 eurotik gorako hileko kuotak ezartzea diskriminatzailea dela salatu zuten: «Neurri horrekin baliabide gutxi duten familien sarrera blokeatu egiten dute itunpeko ikastetxeek». Amaitzeko, konfesio erlijiosoa duten ikastetxeei finantzaketa publikoa ematea kritikatu zuten, beste kredo batzuk dituzten edo ateak diren ikasleen sarrera mugatzen duelako.

Pasa den astean Uriartek berriro hitz egin zuen jatorri atzerritarra duten ikasleei buruz. Hezkuntza Batzordea osatzen duten legebiltzarkideen aurrean, sailburuak gaur egungo egoera «konplexua» dela eta orain arte martxan jarritako ekimenek porrot egin dutela aitortu

zuen. «Azken hamarkadan hainbat neurri hartu izan dira, baina, hala eta guztiz ere, egiaztatu ahal izan dugu neurri horiek ez direla nahiko, ikasle etorkinak eta bertan jaioak ikastetxe eta sare desberdinetan era orekatu eta inklusiboan eskolaratzeko, eta beharrezkoa den aniztasuna eta kulturartekotasuna bermatzeko», esan zuen.

Uriarteren ustez, «etorkinak elkarrekin egotea ez da arazoa, azarua ikastetxeetan aniztasunik ez egotea da. Arazoa ikastetxeetan inklusibitate eta kulturartekotasunik ez egotea da. Hori da arazoa. Ikastetxeak, bai publikoak bai itunpekoak, egun-

Hezkuntza eragileek «Euskal eskola publikoaren aldeko manifestua» plazaratu zuten pasa den hilean.
DENON ESKOLA

go errealitate sozialarekin bat ez etortzea da arazoa». Eta horri dagokionez, EAEn %40tik gorako ikasle etorkin kopuruak dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako hamalau eskola daudela adierazi zuen. Horietatik hamar publikoak dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan ere badira %40tik gorako ikasle etorkin kopuruak dituzten ikastetxeak, horietatik, Uriartek dioenez, lau publikoak dira eta sei itunpekoak. «Baina, badaude kontrako kasuak ere, %5etik beherako ikasle etorkinen kopuruak dituzten 67 ikastetxe ditugu guztira, Haur eta Lehen Hezkuntzan. Eta 169 Bigarren Hezkuntzan. Kasu askotan, 0%tik hurbil», gaineratu zuen.

Egoera horri aurre egiteko, Lakuak jatorri atzerritarra duten ikasleak ikastetxeetan oreka handiagoz banatzeko lanean jarraitu beharko duela nabarmendu zuen sailburuak. «Baina ez

etorkinak banatzeko, baizik eta ikastetxeetan aniztasun handiago izateko. Eta horretarako beste neurri espezifiko batzuk hartu behar dira. Gainera, instituzioen arteko koordinazio handiago izan beharko dugu, egoera honi, batez ere, soziala izan behar den ikuspegi globalago batetik erantzuna emateko», esan zuen. Eta ezinbestekotzat jo zuen «etorkinak diren pertsona guztien integrazio sozial eraginkor eta sendoa sustatzea, ongi izatea eta elkar bizitza bermatzeko aldera, eskusio eta baztertzeko bideak ireki ez daitezen».

Uriartek Hamaikazko programaren garrantzia azpimarratu zuen. Azaldu zuenez, programa horren bidez, ikastetxeen ezagutza bereziei erreparatu zaie, ikasleen aniztasunak behar duen arreta pertsonalizatua jaso dezan. «Programaren helburua da laguntza gehien behar duten ikasleen arrakasta lortzea. Eta



etorkinen ehuneko handia duten ikastetxeetan ikasten ari dira horietako gehienak. Eragileen elkarren arteko esku hartzea sustatu nahi da, beraz, ikasle horien ikasketa maila areagotzeko eta elkar bizitza hobetzeko, ikastetxe horietako hezkuntza proiektuak erakargarriagoak izan daitezen ikasle guztientzat eta familia guztientzat».

Eta behar bereziak dituzten ikasleentzako plazak gordetze-ko aukera ikertzen ari direla ere esan zuen. «2016-2017 ikasturteko matrikulazio prozesuan, talde berriak antolatu eta planifikatzerakoan, Hezkuntza Administrazioak ratiotik gorako plazen %10 hartuko ditu beretzat, aipaturiko behar bereziak dituzten ikasleek bete ditzaten», gaineratu zuen. Bestalde, hiru eskolatze lurralde batzordeetan eskolatze irizpideen aplikazio bateratua egingo dela iragarri zuen Uriartek, eta, horrez gain, diru publikoz

sostengatutako ikastetxe guztien arteko oreka lehenesten hasiko direla. Halaber, 35/2008 dekretuko irizpideak aldatzeko aukera aztertzeko prest daudela esan zuen, «ikastetxe guztien artean, publikoak izan edo itunpekoak izan, oreka handiago egon dadin».

Denon Eskola federazioak ki-deen ustez, Uriartek proposatutako ekimenak ez dira nahikoa Gasteizko eskoletan pairatzen den arazoa konpontzeko. «Entzun genituen sailburuaren azalpenak eta proposamenak, eta gure balorazioa positiboa da, alde batetik, lehengo aldiz arazo bat dagoela onartu duelako, eta hori oso inportantea da. Baina proposatutako neurrien kopurua laburra iruditu zitzaigun, are gehiago arazoaren konplexutasun maila ikusita», azaldu zuen Amalia Barquinek Legebiltzarrean. EAErako matrikulazio bulego bakarra eratzea ere eskatu zuen, aipatu bulegoak diskri-

Kristau Eskola sareko eskolek diotenez, ez diete trabarik jarri ikasle etorkinei. «Badauzkagu ikasle etorkinak %60 eta %80 artean diren eskolak. Ez dugu inor baztertzen», esan dute

Denon Eskola federazioak itunpeko eskolek ezartzen dituzten kuotak diskriminatzaileak direla uste du, eta etorkinentzako erlijioa oztopo dela ohartarazi du

minazio eta segregazioarekin amaituko lukeelakoan.

Halaber, 2009an Gasteizko Legebiltzarrak aho batez onartutako mozioa betetzea eskatu zuen Barquinek. Aipatutako testuan ikasle etorkinen integrazioarako programa berri bat aldarrikatzen zuen Legebiltzarrak. Onartutako legez besteko proposamenaren arabera, programa horrek neurriak jaso behar-ko lituzke ikasleak funts publikoekin mantendutako

ikastetxeen artean banatzeko, «hezkuntza babes berezia behar duten ikasleen gehiegizko kontzentrazioa eragoztearren, eta joerazko erreferentzia gisa hartuz ikasle horien kopuru osoa ez izatea gela bakoitzean %20 edo %25 baino gehiago, haien integrazioa erraztearren».

Pasa den ostegunean Legebiltzarrak beste legez besteko proposamen bat onartu zuen, EH Bildu eta PSeri esker. Erdibideko zuzenketaren sinatzaileek

plan estrategiko bat beharrezkoa dela nabarmentzen dute honako helburu hauek lortzeko: kanpotik etorritako ikasleei, ikasle guztiei bezala, hezkuntza eskaintza bermatzea eta ikastetxe publiko batzuetan gertatzen ari den pilatze-tasa eragozte, eta lurralde-mailako matrikulaziorako bulego bakarra ezartzea edo familia-errenta baxua lehenesten duen baremoa aldatzea.

Azken sei urteotan bi legez besteko proposamen onartu dira, baina, hala ere, Gasteizko Gobernuak ez du konpondu Arabako hiriburuan, baita EAEko beste udalerrri batzuetan ere, ematen den arazoa: atzerritatik etorritako familiek pairatzen duten segregazioa. Agian, Aitor Idigorasek esaten duen bezala, enpresa pribatuekin indarrean dauden itunak aztertze-ko unea heldu da. Izan ere, halako itunak behin-behineko egoerei aurre egiteko sinatzen dira.

«Look»-a

Xabier Mikel Errekondo

Haize freskoa sartu da *look* homogeneoena darabilen euskal familiara leiho hertsien zirrikituetatik eta barruko airea helikopteroen aspe-
k lez hauspotu du, eta harrotu. Eta asal-
datu egiten dira oraindik hiztegi- eta
janzkera-molde ohikoegiak dituztenak,
eta ohitura zaharkituei hertsiki lotuta
daudenak; hori ez da ez gure modua ez
gure estiloa salatuz. Baina haize freskoa
blaust! sartu da, nahiz ikuspegi itxian
betiko hautsetan baino ohituta ez daude-
nentzat (hitz jario, bota, praka, jaka, ka-
zo-orrazkera koletaduna, kopetilun eta
ezpain haserretu pedigridunak) agian
pufada handitxoak izan... Western bateko
saloon-eko ate bikoitza kolpe lehor batez
guztiz zabaldu eta barrarainoko tarima


urratua takoi erraldoidun lehoinabarrez-
ko zapata berdeetan urrats bakoitza Lola
Floresen garboarekin zanpatuaz eta ez-
pain gorri-gorri eta biziekin zeharkatu
izan balu bezala sartu da, aldarrikatuz
hemen nago eta hauxe naiz ni! Halere,
kosta behar du etxe barruko bakeroei ha-
markadatan metatu hauts eta goroldioak
eransteraino harrotzea. Errazago dira al-
darrikatzen biluztasuna eta eraldaketa...
besteenean.

Bazen garaia bizpahiru hitzekin goiti-
behiti ezkerreko eta independentistatzat
arazorik gabe identifikatzen gaituztenei
gauzak zailxeago jartzekoa, pittinka ba-
da ere... *look* bat eta bakarra apurtuaz.
Pack berean hartu genuen *look*-a gorde
dezagun historia liburu-
etarako. Kazo-

moldeko ilaje koletaduna jauzi txatarte-
gira eta askatu ileak irudimenez haizeak
orraz ditzan; bekain ilun lerro-bakar itsa-
tsiari erausi *loktitea* beren nahieran mu-
gi daitezen; lasaitu argazki orotan hor-
tze-
k estu hartutako ezpain zurrinak eta
margotu irribarreak, dohainik baitira;
eta, erantsi botak, Ternua praka eta jaka,
bada eta mundu oso bat zer jantzi... eta
zer erantsi.

Nago erakargarriagoak izanen garela
bai harreman-
etarako bai politikarako. Halako haizerik Zeusek baino ez zezake-
en sor, Zeus jainkosa Onintzak. Gure hai-
ze freskoa, naturala eta bertakoa. Eta
esango dutenagatik kezkarik ez, kutsatu
haize freskoarekin eta aldatu *look*-a hire
nahierara. *1000skr L'Onin!* •

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS

ORTZADAR ELKARTEA

Aitzindari mugako adimena duten lagunak zuzendaritzan sartzen

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Ortzadar elkarteko atea jo dugu, Lasarte-Oriako Zirkuitu ibilbidean. Bertan 1977tik ari dira mugako adimena duten pertsonen eta senideen alde lanean. Halere, biztanleriaren %1ak osatzen duen kolektiboa bera bezala, elkarteak ere ez da sobera ezaguna. Berriki mugako adimena duten lagunak zuzendaritzan sartu izanak ekarri ditu komunikabideetara.

Mikel Moreno Ortzadarreko presidentea da, Marian Correbero eta Josu Santiago zuzendaritzako kideak, Maider Brit gizarte langilea eta Rosa Rubio koordinatzailea. Mahai baten bueltan hartu gaituzte. 1977an proiektua sortu zenetik dabil jo eta ke Rubio. Guraso talde baten ideia izan zela kontatu du. Mugako adimena (garai hartan oraindik diagnostikatu eta definitu gabea) zuten seme-alabek jasotzen zuten hezkuntza desgokia zela ikusten zu-

ten. Ohiko eskolan atzean gelditzen ziren eta hezkuntza bereziko zentroetan ere ez zuten beren lekua aurkitzen. Hortaz, zerbitzu bat sortzeko jaio zen Ortzadar: hezkuntza zentro bat, eskolako etapan eta Lanbide Heziketan mugako adimena zuten pertsonak hartzeko. Zentro horrek martxan segitzen du. Ategorrietan dago eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelaz osatuta dago. Baina eskolaz gain, behar gehiago dituzte: lanean, autonomia lortzeko bidean, etxean... Orduan, Ortzadarrak Sutargi lanerako zentro berezia sortu zuen. Honek ere aitzinera jarraitzen du eta berta-

ko langileak mugako adimena duten lagunak dira. Bestetik, pertsonalki behar duten laguntza ematen die elkarteak. 2011n familia eta profesionalak gogoeta egin zuten: «Urte asko generamatzen esaten pertsona hauek gai direla, beren beharren bozeramaile izan daitezkeela eta beren eskubideen alde borroka daitezkeela. Horregatik, interesgarria iruditu zitzaigun elkarteko zuzendaritzan sartzea», agertu du koordinatzaileak. «Egia da azkenean desberdintasunak guk geuk jartzen ditugula. Laguntza txiki batekin autonomoak izateko eta ze behar dituzten esateko gai dira. Beren bozeramaile bilakatuz, desberdintasunak azpimarratzen ditugu».

BULTZADA BATEKIN, AUTONOMO
Mugako adimena duten lagunek koefiziente intelektual baxuagoa dute, 75-85 ingurukoa (Osasunaren Mundu Erakundeak 85 eta 110 artean jartzen du batez bestekoa). Hala agertzen dute eurek: «Ez gara talde homogeneoa, pertsona bakoitzak bere beharrak ditu, baina gutariko gehienei ingurune lehiakor, zorrotz eta azkar honetara egokitzea kostatzen zaigu. Gehienetan ez dugu ezaugarri fisiko berezirik, baina ohikoa da ikasketa prozesu motela izatea, buruko adin eta adin kronologikoaren artean aldea izatea eta sarritan aurrea hartzea edo egoera berriei egokitzea kostatzea». Bizitza autonomia egin dezakete, baina horretarako laguntza behar dute. «Elkarte honetan bildu gara bizitza duina eta autonomia eraman ahal izateko hainbat esparrutan: pertsonalean, hezkuntzan, lanean edo gizartean. Bizitza aberatsa eduki ahal izateko eta gure komunitatean parte hartze aktiboa izateko borroka egiten dugu. Hala, gure bizitzako erabakiak guk geuk hartzeko eskubidea zein ezberdinak izatekoa aldarrikatu nahi ditugu».

JOSU, MIKEL ETA MARIAN: BIZIPENAK
Hiru lagunak bizitzako ibilbidea errepasatzean, esperientziek bat egiten dute hainbat puntutan.



Ezker-eskuin, Mikel Moreno, Marian Correbero eta Josu Santiago, Ortzadar elkartearen egoitzan. Hurrengo orrialdean, Maider Brit eta Rosa Rubiorekin.
Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS



Hirurek izan zituzten arazoak eskolan eta beren biziak izugarri hobetu ziren Ortzadarren sartu ondotik. Hala kontatu du Josu Santiagok: «EGBko 5. edo 6. mailatik aurrera klasetik atera eta jo egiten ninduten. Oso gaizki pasatu nuen. 8. maila errepikatu nuen eta 1982an familiak Ortzadar ezagutu zuen eta bertan sartu nintzen, 16 urterekin. Nire bizitza erabat aldatu zen orduan. Sutargin ere hasi nintzen. Orain anaiarekin bizi naiz eta ohiko bizitza egiten dut. Lanera noa, lagunekin ateratzen naiz, mendira ere joaten naiz...».

«Danborradan ere ateratzen zara!», erantsi du Mikel Moreno lagunak irriz. Mikel ongi moldatu zen ikaskideekin 8. mailara arte. Kurtso hori errepikatu eta arazoak eskola politetnikora iritsi zenean hasi ziren. «Ikasketetan nituen zailtasunez gain, *bullyng*-a sufritu nuen. Ama irakasleekin biltzen zenean betikoa esaten zioten: 'Alferra da, ez du ezer egiten, ez da zentratzen...'. *Bullyng*-arekin, gainera, gaiztoa ni nintzen. Ondotik, ikastaro bat egin nuen eta irakasle baten bidez sartu nintzen Ortzadarren, 1996an. Niri ere

egoera zeharo aldatu zitzaidan». Amarekin bizi da eta ohiko bizitza egiten du.

Marian Correyeroren gurasoei alabak ez zuela ikasteko balio erraten zieten irakasleek, aunitz kostatzen zitzaiola eta ez zihola kideen mailan. Orduan, aita Marianekin haserretzen zen. «Hori gertatzen zen ikasturtez ikasturte. Aitak esaten zidan lanerako balio ez banuen bizitzan ere ez nintzela ezer izango. Triste eta gaizki jartzen nintzen».

Gainera, kideek alde batera uzten zuten. Moja eskola zen eta hasi zenean neskak soilik ziren. Gero mutilak eta neskak. «6 urterekin izan nuen lehen klaseko oroitzapen txarra daukat», dio. «Aitaren aldeko familiak baztertu egiten ninduen. Oraindik ere bai, baina jada berdina zait».

IZENIK ETA DIAGNOSTIKORIK GABE

Ortzadarreko koordinatzailearen arabera, mugako adimena berdina ematen da emakume eta gizonen artean, baina badago desberdintasun bat: «Família askotan pentsatzen dute emakumeak izanik zaintza edo garbiketa lanetan arituko direla, ulertu gabe pertsona gisa esku-

bide berak dituztela. Orain arte elkarteko bazkideen artean askoz gizonetako gehiago egon da. Orain emakume gehiago ikusten hasi gara. Kopuruak parekatzen doaz».

Agertu dutenez, tamalez, oraindik *bullyng*-a sufritzen dute eskolan. Rubiok azaldu du mugako adimenari ez zaiola izenik jartzen eta, curriculum egokitu arren, detekzio eta arreta espliziturik gabe segitzen dutela. «Jazarpena eta bazterketa jasaten dute eta ez da esku hartzerik egoten. Ulertu eta babesik eman gabe jarraitzen dute».

Gizarte laguntzaileak esplikatzen du 11 urtetan edo lehenago, zailtasunak ikusten hastean, ez

Marian Correyeroren gurasoei alabak ez zuela ikasteko balio erraten zieten irakasleek. Orduan, aita Marianekin haserretzen zen. «Triste eta gaizki jartzen nintzen»

Inguru lehiakor, zorrotz eta azkar honetara egokitzea kostatzen zaie; inguruari ere bai haiengana egokitzea, batik bat dituzten behar, zailtasun eta gaitasunak ez ezagutzeagatik

zaiola izenik jartzen eta nerabegarora iristen direnean diagnostikorik gabe jarraitzen dutela. «Beste sufrimendu mota bat hasten da orduan, bazterketarekin. Askotan eskola bukatu arte edo bukatuta ere ez da orientazioa ongi egiten, hain justu diagnostikorik ez dagoelako».

«Harrigarria bada ere, diagnostikoa falta da eta horren beharra dago, besteak beste, gurasoak orientatzeko, oso galduta segitzen baitute. Norbaitek arduratu behar du diagnostikoa egiteaz», azpimarratu du koordinatzaileak. «Diagnostiko onak orientazio ona ekartzen du. Zenbat eta lehenago egin, hobeki. Horrek errolda egokia ere ekarriko luke. Suposatzen da biztanleriaren %1ak duela mugako adimena. Kopuru handia da».

Esplikatu duenez, oraindik eztabaida dago desgaitasuna duten ala ez. «Ez daude legez aitortuta eta hartzen ahal diren neurriak, lanean, hezkuntzan, jendartean... ez dira hartzen. Baina horrek ez du esan nahi pertsona hauek existitzen ez direnik; hemen daude. Eta gai dira, askorako, gainera».

ELKARTEAREN ESKAINTZA

Horregatik, balio hori ateratzeko, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu elkarteak: informazio, balorazio eta orientazioa; laguntza, arreta eta jarraipen sozial eta psikologikoa; bizimodu independenterako laguntza; osasun beharren jarraipena; eta aisia eta oporrak.

Aisialdiaren arloan, mugako adimena duten lagunak batzorde batzuk sortzen ari dira: mendian ibiltzeko, jai eta ferietan gozatzeko, bisita turistikoak egiteko... Oporretarako programa ere badute 2005etik. Benidorm, Mallorca, Salou eta Calellan izan dira, besteak beste. Langileak dira eta beren oporrak ordaintzen dituzte. Monitoreak lagun gisa joaten dira, adibidez, badaudelako pertsonak zaintza handiagoa behar dutenak, agian medikamentuak hartzen ari direlako.

Kide edo boluntario gisa eurekin bat egiteko gonbita luzatuz agurtu dira (ortzadar@ortzadar.net eta 943 37 34 76).



Gorka Zozaia - @zotz
Kimikaria

Harri bat lokatzetan

Mileva Einstein-Maric (1875-1948) omentzeko baliatu dut gaurkoan txoko hau, irudian ikusiko duzuenez. Azken artikuluan uhin grabitazionalen detekzioaren berri ematen nuen, Einsteinen aurreikuspen teorikoak ehun urte geroago frogatzen zirela azalduz. Lagun batek orduan Mileva Maric zientzialariari gorazarre egingen zion artikulua pasa zidan, Erlatibitatearen Teoriaren egiletza berarengan kokatuz, eta aipatu aurkikuntza iraultzailea publiko egin zeneko eguna, otsailaren 11, hain zuzen ere Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna zela aldarrikatuz. Aitortu behar dut ordura arte ez nuela andrea ezagutzen, ezta Einsteinen lanen egiletzaren gaineko polemika ere, eta, hala, Martxoaren 8a pasa berri, egun batzuk eman ditut gaian sakontzen.

Egiari zor, sakondu ahal izan dudana ez da aski izan, are eta gutxiago, erabat lokaztutako eremua dela kontuan izanik. Lokaztuta, gehienbat, bus-tiaren gainean egiten duela-ko euria andreak bizitza publikotik baztertzeko joera patriarkalari dagokionez. Gaur arte heldu ahal izan diren ebidentziak –asko eta determinanteak ez ditugu eskuartean– zientzialarien eta historiagileen misoginiak erabat baldintzatuta daude. Baina lokaztuta ere bai, topagune bateko kanpalekua lez, jende andana pasa delako eremu honetatik, go-ra eta behera, tesi ezberdina indartzeko ebidentzia bila. Hankak belaunetaraino lohituta ibili naiz beraz egunotan, argi pittin baten bila, lokatzetik irteteko harri baten bila.

Bistan denez, ezinezkoa zait lerrootan polemika honen guztiaren berri ematea, baina asko -gehiegi, sinplekeriatan jausten nai-

zen jakitun- laburbilduz, hauxe da afera: Albert Einstein eta Mileva Maric Zuricheko Institutu Politeknikoan ezagutu ziren 1896an matematika eta fisika ikasketak egiten ari zirela. Harreman estu bat garatu zuten elkarrekin, 1903an ezkonduz, tartean alaba bat eta ostean bi seme ekarriz. 1912an banatu ziren (1919an dibortziatu), baina polemikaren iturri dena bereziki 1905. urte aurreko hartu-eman da. Hain zuzen ere, urte horretan argitaratu zituen Einsteinek zientzia irauliko zuten bost artikuluko –erlatibitate bereziari, mugimendu browndarrari eta efektu fotoelektrikoari buruz– “Annalen der Physik” aldizkarian. Lanotan Maric berak parte hartzerik duen da ezbaian dagoena, bere gaitasun zientifikoan oinarrituz batetik –aparteko talentua behar zuen gizonentzako ziren ikasketetan onartua izateko eta gainera gaiok landu zituen–, baita desagerturiko eskuizkribuetan “Einstein-Marity”

sinadura ei zegoela argudiatuz bestetik, eta batez ere, bien artean zein hirugarren pertsonekin izandako gutunak aztertuz, zeinetako batean Albertek «gure mugimendu erlatiboaren lana» aitatzten duen. Kristoren datu, dedukzio eta hipotesi anabasa erauzten da horretatik guztitik, baina interesa –eta Interneterako sarbidea– izanez gero lokatzotan ibiltzera animatzen zaituztet.

Nire partetik esan beharra dut (tamalez, jenioen aurkako eta ezkutuko aldeko bainaiz), Maricen egiletza sustengatzen duten iturrietan kontraesan eta *kopia-pega* gehiegi ikusi ditudala nire gusturako, eta debaterik zintzoena ingelesezko Wikipedian Mileva Maricen artikuluen eztabaidan topatu dudala, zeinetan ez zaion andreari Einsteinen lanaren egiletzarik aitortzen.

Harri bat baina topatu dut lokatz honetan guztian: inork ez du zalantzan jartzen Albert Einsteinen izaera misoginoa. Badira Maric berarekiko tratu txarra agerian uzten duten dokumentuak ere, eta agerikoa da familia osatzen denetik andrearen denbora lan erreproduktiboetara betetzen dutela. Alta, aztertzen den gutun horietako batean, Maric berak hitz joko honekin erantzuten dio bere lagun onenari lanaren egiletzaz galdetzean: «*Wir sind ein Stein* ('Harri bat gara – Einstein gara')». Milevak bere hilariraino eramane zuten Einstein abizena.

Ez dugu antza biderik Maric-ek Einsteinen lanetan izandako parte hartze zientifikoa ikusteko, baina, aldi berean, agerian gelditzen da Albertek ezer gutxi egin ahalko zuela urte determinante horietan Milena alboan izan ez balu. Izan ideiak emanez, matematikarekin lagunduz, edo erabat debaluatzen dugun lan erreproduktiboa bermatuz, parez pare duguna inbisibilizaturiko beste andre baten historia da. Ekar ditzagun argitara eta erlatibiza ditzagun jenioak! •



Mileva Einstein-Maric 1903-1912 bitartean izan zen Alberten emaztea.

{ koaderno } **Garazi Goia**

Lasaitu edo errudun sentitu

Inor ezin da lasaitu eta inork ezin du atsedean hartuz disfrutatu, aldi berean errudun sentitzen bada. Atsedean hartzen dudanean errudun sentitzeko joera daukadala da, ordea, nire arazoa. Europar gizarte hau itxuratzen duen lan etikak nire denbora librearen probetxugarri diren aktibitateekin bete behar dudala gogorarazten dit. Behin eta berriz. Lasaitzea huts egi-tea bezala da.

Ez dira nire hitzak, baina hegazkinean eserlekuaren aurrean topatu dudana aldizkarian irakurri ditudanean nireak izan zitezkeela pentsatu dut. Atsedean hartu nezakeen denbora laburrean zutabe hau idazten ari nintzen, eguneroko errutina hiru orduz atzeratuta zebilkien eta lokartu berri zen alaba alboan nuela.

Aste honetan ere hitz horiek benetan adierazgarri diren egoera baten aurrean topatu naiz. Emakumeen aldeko kanpaina baten bultzatzailea izateko proposamena egin didate lantegian. Helburu ezberdinak ditu egitasmoak, baina, besteak beste, talentu handiko emakumeak lantegian sustatu eta garapen aukerak ematea lortu nahi dugu; eta orokorrean, datorren urteko apirilera hiru mila pertsonako sail batean %30 emakumeak izatea. Egun, %25 baino ez dira.

Ezin izan nion ezezkoa eman proposamenari, nahiz eta atsedean hartzeko asmoa (eta ziurrenik beharra) nuen.

Oreka berriro ere desorekatuta. Baina, hegazkinean irakurri dudana artikulu horrek zioen moduan, kasu honetan benetan errudun sentituko nintzateke.

Emakumearen Nazioarteko Egunaren ildotik bi istorio aipatu nahiko nituzke.

Aste honetan, Londresko finantza etxe ezagun batean, zuzendaritza taldekoek lantegiko emakume guztiei diru sari bat eman diete dendara joan eta urteko koloreko soineko erakargarriak erosteko. Eta lankide gizonezkoen aurrean dotore azaltzeko. «Zein urtetan gertatu zen hori?», galdetu du batek sinesgogortasun ukituz. Hain zuzen horixe da egoera hobekien laburtzen duen galdera. Ez dago beste ezer esan beharrik.

Lagun batek film labur bat zuzentzeko diru laguntza jaso berri du aniztasuna sustatzen duen erakunde baten eskutik. «Mercury 13» misioaren istorioa jorratzen ari da.

Ipar Amerikako hamahiru emakumek NASAREN espazio ontzi bat pilotatu ahal izateko sekretupean egin zuten prestakuntza da gai nagusia. Kontatu didan arte ezezaguna zitzaidan niri istorioa.

1960. urtean, William Lovelace ikertzaileak emakume bat, Jerrie Cobb, aukeratu zuen espaziora joateko probak egiteko. Emakumeen gaitasuna frogatzea zen helburu nagusia. Ezustekoa eraman zuen, probak egin zituzten denen artean, Cobben emaitzak %5 altuenen artean zeudela ikustean. Agidanez, emakumeek presio psikologikoa eta bakardadean eman beharreko uneak jasateko gaitasun gehiago azaltzen zuten; oxigeno gutxiago kontsumitzeko ahalmena ere bazuten. Emaitzak aztertu ostean, hamahiru emakume aukeratu zituzten (hortik dator «Mercury 13» izena).

Hegaldiaren simulazioak hasteko egun gutxi batzuk falta zirela, adostutako egitasmoa bertan behera utzi be-

Emakumeen aldeko kanpaina baten bultzatzailea izateko proposamena egin didate lantegian. Ezin izan nion ezezkoa eman proposamenari, nahiz eta atsedean hartzeko asmoa nuen

harko zutela erabaki zuen NASAk, eta horrela jakinarazi zien hamahiru emakumeei. Telegrama motz batekin, azalpen gehiegi eman gabe. Gizonezkoak nahiago zituzten benetako misioetarako.

Azalpenak eskatzen saiatu ziren emakumeak, kexa formalak ere igorri zituzten, baina NASAk eta egitasmo hartan kudeaketa lanetan zebiltzan beste erakundeek ez entzunarena egin zuten.

Aipatzekoa da, proba horietatik sortu zela ondoren aski ezaguna bihurtu zen «Mercury 7» tripulazioa. Gizonezkoak ziren zazpiak, noski.

Hogei urte pasatu ziren NASAk lehenengo emakumea tripulazio batean sartu zuen arte, 1983an Sally Ride izan zen, hain zuzen. Gaur egun %10 baino ez dira emakumeak.

Nola hartuko dugu atsedean oraindik ere hainbeste lan egiteko dagoenean? •

Euskal Herrian izan zen sorginen inguruko auzietan Inksizioak eskua sartu zuela kontatu izan digute behin eta beriz, baina agian ez da hain arrunta jakitea inkisidore bati esker libratu zirela hainbat eta hainbat pertsona, euren aurka-ko auzia Nafarroako Gorteko epaile zibilak hasi eta gero. Urte- en poderioz gure imajinario kolektiboaren parte bilakatu dira sorginak. Mundu osoko mitologian agertzen dira pertsonaiok, modu desberdinetan irudikatu- ta, baina, oro har, emakume za- harrak dira, itsusiak eta arropa zaharrez jantzitakoak.

Gaiak luzerako emango luke eta gauza gehiago eta hobeto azaltzeko gogoz gelditu da Juan Ignacio *Juainas* Paul Arzak. Hala ere, Euskal Herrian izan ziren sorgin auziei buruz dakienaren pintzelada txiki batzuk behin- tzat ekarri dizkigu lerrootara.

Sorginkeriaz asko aritu izan zara zure lanetan, ikuspuntu objektibo batetik gainera, historialaria zaren unetik.

Horri buruz hitz egiteko sorgin-keria tradizionala eta talde sor- ginkeria bereizi behar ditugu, neurri handi batean zerikusirik ez dutelako. Talde sorginkeria, nik dakidala, ez zen inoiz egon. Beraz, epe konkretu batean sor- tutako asmakizuna izan zen. Er- di Aroaren bukaera aldera eta Aro Modernoaren hasieran, agintarien artean talde sorgin-kerietan sinisten zuen jendea ugaltzen joan zen. Hala, Europa gehiena ukitu zuen korronte bat sortu zen.

Akelarreak egiten zituztela, beraz, ez da egia.

Hainbat kronika idatzi zituen Leandro Fernandez de Morati- nek, Francisco de Goyaren lagun batek, XIX. mende hasieran, Zu- garramurdiko sorginkeria pro- zesuaren inguruan. Kontatuta- koa egia balitz bezala, kronikek sekulako ospea hartu zuten. “Akelarre” hitzari dagokionez, euskarekin lotutako auzietan ematen diren ergelkeriak tarte- ko, zera gertatu zen: betidanik

DATUAK Historialaria da Juan Ignacio «Juainas» Paul Arzak donostiarra. Bere hitzetan, «historialari nafarra». 1978an «Eibarko sozialismoa» liburua argitaratu zuen. Horrez gain, euskal gizartearen inguruko artikulak argitaratu izan ditu komunikabideetan.



«Talde sorginkeria ez zen inoiz egon, epe konkretu batean sortu zen asmakizuna izan zen»

toki makartsuei “aker-larreak” deitu izan bazaie ere, une horretan Urdazubiko abadeak ikusi zuen bazuela abagune bat, eta, “aker-larreak” toponimo bat bazen ere, sorginen bilerei horrela deitzen hasi zen. Frantsesez *lande du bouc* esaten zieten lur horiei, baina frantsesek sekula santan ez dute esango sorginek *lande du bouc* egiten dutela. *Sabbat* egiten dute. “Aker-larreak” hitza segituan aldatu zen, eta, hala, “akelarre” gelditu zen. Elgorriagan badago, adibidez, “Akerlurra” deitzen den leku bat.

Bada, Goyak pintatu zituen koadro famatuek, bata 1798koa eta bestea 1823koa, beste izen bat zuten hasieran, baina, XIX. mendean, izena aldatu zieten eta orain “Akelarrea” deitzen dira. Are gehiago, katalanez idatzitako artikulu bat irakurri nuen behin eta “akelarre” hitza erabiltzen zuten. Eta okerreña da euskaraz ere erabiltzen dugula!

Zugarramurdik ospea izan du, baina, beste leku batzuetan ere izan al ziren sorginkeria auziak?

Zugarramurdiko prozesutik gorde dena Madrilgo Artxibo Historikoan dago. Hori da Henningсен ikerlariak maisuki ikertu duena. Nafarroan, ordea, 1610 baino lehen prozesu ugari egon ziren eta bertan gorde dira. XVI. mendea, hala ere, aberatsa, kontraesankorra, gorabehera ugari-koa edo aldakorra izan zen. 1575 eta 1576 artean 25 herri inguruko herritarrak izan ziren epaitu, torturatu eta zigortuak. Epaila zibilak, Nafarroako Gortekoak, gogor eta sutuagoak izan ziren Logroñoko inkisidoreak eurak baino. Bigarrenek, inkisidoreek libratu zituzten akusatatu batzuk eta jokaera askoz apalagoa izan zuten. Desberdina izanda ere, antzeko zerbait esan daiteke Urdazubi eta Zugarramurdiko prozesuari buruz ere.

Salazar y Frias inkisidore jaunak, elizako zenbait goi karguren laguntzarekin, baretu eta neurri batean zuzendu ere egin zuen Baztan-Bidasoan prestatzen ari zen sarraskia. 1610eko Logroñoko Autofedean, baina, ez zuen beste bi inkisidoreen fe-

de itsua gainditzeko indarririk izan. 1614an frogatu zuen, ikerketa ikaragarri bat egin ondoren, akusazio guztiak gezurra zirela. Esaterako, argi utzi zuen sinesgaitza zela Donamariako biztanleen %60 susmopean egotea, aitorpenetan gezur ugariak zeudela azaleratu zuen...

Sorgin gehienak emakumeak dira. Gainera, zaharrak eta gaizki jantzita irudikatu ohi ditugu.

Egia esateko, akusatuen artean denetik egon zen, baita aberatsak eta gizasemeak ere. Baina, gaur egun ere, diru asko baduzu errazago duzu abokatua lortzea eta babestua egotea, ezta? Bada, pentsa garai haietan... Nekazari eta emakumeek, bereziki alargunak eta zaharrak izanez gero, oso zail zuten horrelako prozesu bati aurre egitea. Horri gehitu behar zaio XIII. mendetik aitzinera, gutxi gorabehera, elizak emakumea baztertu zuela, deabrutu. Emakumea zen begizkoa botatzeko gaitasuna zuena, bereziki hilerokoarekin zegoenean, tratadista haiek esaten zuten. Eta zenbat eta zaharragoa, arriskutsuagoa, hilerokoa areagotzen omen zitzaielako. Deabruaren jostailutzat zituzten.

Graxiana emakume horietako bat izan al zen?

Berari leporatu zioten sorgin maistra izatea. Antza denez, Zugarramurdi Urdazubiko monasterioaren menpe zegoen, baina epaiketa baten bitartez lortu zuten bereiztea. Urdazubikoek elizaren kontrolarekin jarraitu zuten eta horrek dirua esan nahi du. Akusazioak hasi zirenean baziren gizarte mailako gatazkak ere tartean: jauntxoak edo haien menpekoak, elizaren kontra zeudenak... Horrela agertu ziren agoteak, eta Graxiana ere tartean zegoen.

Zer zen, beraz, sorgina izatea?

Sorginkeria tradizionalan ahalmen bereziak zituzten pertsonak zeudela sinesten zen. Aipatzen ziren gauzen artean honakoak daude: haurrak hiltzeko, jendea gaixotzeko, uztak

urratzeko eta ekaitzak ekartzeko gaitasuna. Gertaera txar guztiak sorginek egindakoak ziren. Gauzak ulertzeko modu bat lortzen zuten horrela. Egundut uste ekaitzak sorginek ekarriak direnik inork esango duenik. Agian, hori bai, begizkoan sinesten dutenak egongo dira.

Sinesmen guztiak aldakorrak dira, egokitu egiten dira, eta kasu horretan ere hori gertatu zen. Juduei, kataroei eta beste batzuei leporatu zizkieten gauzak leporatu zizkieten, harrezkerotik, talde sorginkeriar. Herejeak ziren, eta herejeak izateko nahi eta nahi ez deabruarekin elkartu behar ziren, deabrua gurtu behar zuten, Kristo ukatu, Belcebu ipurdian musukatu eta larrrua jo berarekin, hegan egin... Lasai egoteko motiborik ere bazegoen, ez pentsa: garaiko jakintsu erlijiosoeak agertu zuten, larru jotze haietatik deabruaren seme-alabarik ez zen jaioko...

Zer dela eta ezin zen deabruaren seme-alabarik sortu?

Idatzi zituzten tratatuetan agertu zuten deabruak inkubo eta sukubo itxura har zezaketela, sexu harremanetarako gizaseme edo andre itxura hartuz. Bada, esperma sukubo itxura zutenean hartu eta inkubo forma zutenean bota egiten omen zuten, hau da, umea beti gizasemearena da, haziaren jatorria.

Eta sorginak torturatzen al zituzten inkisizio garaian?

Torturak ohikoak ziren garai hartan, bai epaiketa zibiletan bai erlijiosoetan. Hori bai, torturatu baino lehen egia esateko eta lagunak salatzeke aukera ematen zieten: «Egia –bat eta bakarra– esan eta libratuko zara. Esaten ez baduzu torturarekin jarraituko dugu, eta beso bat galtzen baduzu edo hiltzen bazara zure errua izango da».

Oinazeari aurre egin zioten batzuk egon ziren. Esaten zuten, nahiago zuten horrela hil gezurra esateagatik infernura joatea baino. Beste batzuek, ordea, torturak jasanezinak egiten zitzaizkielako, epaileek entzun nahi zutena esaten zuten. Nafarroako Artxiboan gorde diren

JUAINAS PAUL ARZAK HISTORIALARIA

XVI. mendean epaituak izan ziren emakumeen memoriaren defendatzaile sutsua da Juainas. Egiari helduz, «sorgin» deskribapena errotik ezabatu nahi du.

Nagore Belastegi Martin

«Emakumea zen begizkoa botatzeko gaitasuna zuena, bereziki hilekoarekin zegoenean. Eta zenbat eta zaharragoa, arriskutsuagoa, hilekoa galtzerakoan pozoia areagotzen omen zitzaielako»

«Aurkitu izan ditut salaketak sendabelarrak erabiltzeagatik. Sendabelarrak betidanik erabili dira, izan zuen jaitsiera bat eta orain berriro erabiltzen dira»



prozesuetan ikus daitezke horrelako hainbat kasu, ugari.

Pelikuletan sorginak ikustea ez da arraroa. Aipagarria da Alex de la Iglesiaren «Las brujas de Zugarramurdi» lana.

Pelikula hori grabatu behar zutenean nik berehala esan nuen, «zer egin behar dutela?», eta, esan zidaten, «lasai, ez du zerikusirik historiarekin, 'alexada' bat da». Ados (barreak). Neurri batean, filmetan izugarriak jasan zituzten emakume normalak izan zirela aldarrikatzen ari garen seinale da hori.

Noiz amaitu ziren sorginkeria auziak Euskal Herrian?

1614an Salazar y Friasek egin zuen ikerketa horren ondotik. Baina, hala ere, sorginen gaineko susmoak ez ziren desagertu. Luzaroan iraun zuten. Horren lekuko, epaiketa txikiak ere egon ziren. Gipuzkoan, adibi-

dez, Lezoko apaiz batek sekula-koak esan zituen.

Maite Lakar ikerlariak jendeak esaten zituenak grabatu zituen 2000tik 2004ra bitartean. Bortzirietan eta Baztan inguruan egin zituen elkarrizketak. Nik horri buruz idatzi nuen artikulua batean, "El akelarre, una invención afortunada" deiturikoa. Pentsa, jendea oraindik ere sorginei buruz mintzatzen zen; hori bai, ez zen talde sorginkeriarik ageri. Sorgin bakanak ziren, lamiekin harremana dutenak.

Egun badaude oraindik ere korrante batzuk sorginkeriarekin lotzen direnak.

Amorru ikaragarria ematen dit oraindik sorginkierietan sinesen dutenak badaudela ikusten dudanean. Ikerlari batzuek proposatu zuten, agian, talde sorginkeria paganismoarekin lotu zitekeela. Talde sorginkeria ez da existitu! Sorginkeria tradi-

zionalaren gaineko sineskeria bai, egon da, eta segitu du. Afrikan edo Nepalen, adibidez, xamanak daude. Beste sorginkeria mota bat da, tradizionala.

Orain asko erabiltzen dira sendabelarrak. Horiek ere lotu izan dira sorginkeriarekin.

Aurkitu izan ditut salaketak sendabelarrak erabiltzeagatik. Sendabelarrak betidanik erabili dira, izan zuten jaitsiera bat eta orain berriro erabiltzen dira. Ez dut sorginkieririk ikusten horretan. Belarrekin ibiltzen ziren emakumeak ziren, besterik ez. Gertatu zen ere sendabelarrak erabiltzen zituztenak kristautu egin zirela, eta, ondorioz, dena delako edabea prestatzen ari zirela lau kredo eta aitagurea esaten zituztela. Pentsa, Zubietan San Juan bezperan belarrak erre eta suaren gainetik pasa behar da, "txarra kanpora, ona barrura" esanez. Belarrak bedeinkatu

egiten dira. Suarenak sorginekin ez du zerikusirik, baina bai ekinozioarekin. Druidek ere aipatzen zuten hori eta badu bere logika, firmamendua aztertzen zutelako. Lehen ideia horiek guztiak nahastu egiten ziren eta orain gauza bera egiten dugu; gauzak nahastu eta auskalo zer ateratzen den hortik!

Antibiotikoak duela gutxi asmatuak dira, lehen sendabelarrekin aritzen ziren, lehen haur gehiago hiltzen ziren bezalaxe. Ohitura bazuten haurra txikia zela gurasoekin oheratzeko. Ito-ta edo ohetik eroriak, pila bat hiltzen ziren. Gaitzak ere arruntagoak ziren. Kontuan har dezagun hemen higiena XVIII. mendeko aurkikuntza izan zela. Hori baino lehen garbitzea ohitura arraroa zen, ia bekatua, Ameriketako indigenak usaindu zuten bezala! Zuri, zibilizatu, kristau izerdituta, burdinazko koraza eta guzti, hango berotan!





Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA NORABIDEA

«Feministok iraultzarako prest». Duela ez hainbeste dezenteko iraultza zen Martxoaren 8a egutegian morez tindatzea. Hori lortu da. Eta duela gutxira arte iraultza dezentekoa zen “feminista” hitzari tokia egitea Martxoaren 8an eta hor-tik aparteko gainontzeko egunetan. Hori ere lortu dela dirudi. Eta pozik beharko genuke, baina ez nago hain pozik. «Emakumeak zoriondu egin behar dira egun honetan eta eskerrak eman egiten duten lan guztiagatik», entzun diot esaten

telebistaren mikrofonoaren aurrean paratu den bati. Ai, ai, ai... ea norabidez erraten ari ote garen... Bidegurutzean bi aukera daude: gezi txikiari segitu eta azaleko aldaketa horretan geratu, parekidetasuna lortu den ilusio faltsuaren gainean, «nahikoa egin dugu» esanez, gure buruari gezur txikitari. Edo gezi handiari segitu, bide luzeagoa eta nekezagoa egin, hankara lotutako harri astun bakoitza askatu eta bidean segi, segi, segi... amagoia.mujika@gaur8.info



Ezkerretik eskuinera Jon, Mikel eta Egoitz Zapiain, dagoeneko sagardotegiko martxaren erreleboa hartzeko prest dagoen belaunaldi berria. Alboko orrialdean, merkaturatu berri duten produktu berria: Bizi-Goxo sagardoa.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ZAPIAINEN BIZI-GOXO

Baserriko ganbarako betiko errezil sagarra munduko edozein mahaitan gozatzeko moduko edari hotz bihurtua

Bizi-Goxo izena du, eskusiboki errezil sagarrez egin da go, hiru urteko lanaren emaitza da eta hasiera batean postrerako sagardo bezala izendatu duten arren, bestelako tarreetan ere tokia izan dezakeela ikusten da, aperitiboan kasu, edo norberak gustu duenean.

Bost mendeetako tradizioa duen Astigarragako Zapiain sagardotegiak produktu berri berria jarri du merkatuan, tradizioetik eta berritasunetik maila paretsuan edaten duena.

Miguel Zapiainek agertu duenez, lau urteko epean belaunaldi aldaketa emateko asmoa dute, eta dagoeneko martxa batean ari dira Mikel, Jon eta

JENDARTEA / amagoia.mujika@gaur8.info

Zapiain sagardotegiak produktu berria merkaturatu berri du, Bizi-Goxo postreko sagardoa, garraztasuna eta gozotasuna edari hotz batean bilduta. Ez da, baina, airetik sortutako produktua: euskal baserrietako ganbaretan eta sukaldeetako plateretan hainbeste presentzia izan duen errezil sagarra dauka sustraian.

Egoitz, erreleboaren belaunaldia. Produktu berriak asko dauka, beraz, belaunaldi berritik. «Dena etxean egindakoa; hasi ideiatik eta bukatu diseinuan. Dena mahai honetantxe sortu da, eta guretzat oso garrantzitsua da hori», esan du Miguelek. Mimo handiz egindako produktua da, ez alferrik hiru urte pa-

satu dituzte lanean, nahi zuten kalitatera iritsi arte. «2013an hasi ginen produktu berri honekin lanean. 2014ko uztarekin proba bat egin genuen, baina ez zitzagun emaitza gustatu. Orduko saiakeratik ikasitakoak eta 2015ean izandako uzta onak parte handia izan dute orain atera dugun produktu honetan.

Egia esan, oso gustura gaude produktuaren kalitatearekin», segitu du Mikel Zapiainek.

Bizi-Goxo sagardoak bi erpin dauka: gozotasuna eta garraztasuna. Mundu mailako ardogintzan badira gozoa eta bizia uztartzen dituzten produktuak, originalak eta komertzialki erakargarriak direnak, Sauternes, Oporto eta Alemaniako ardo gozoak kasu. Kanadako *cidre de glace* edo izotz sagardoak ere izan dituzte inspirazio iturri. «Guk errezil sagarra hartu dugu, berandu heltzen delako eta, gainera, naturalki kontzentratzen delako. Garraztasun handia dauka eta aberatsa da azukretan. Historikoki gure baserrietako ganbaretan gorde izan den sagarra da, negu guztian irauteko gai delako. Errezil sagarra, usteldu beharrean, ura galdu eta zimurtu egiten da, naturalki gertatzen den kontzentrazio prozesuaren bidez. Ura galtzen duenean kontzentratzen da azukretan, aromatan eta garraztasunean». Eta Euskal Herrian hainbeste tradizio duen errezil sagarretik sortu dute Bizi-goxo: 10 graduko alko-



hola duen eta, hala ere, litroko ehun bat gramo azukre dituen edaria. «Eta gozoa izan behar duela pentsatu arren, ez da gozoa. Garraztasun nabaria dauka eta gozoa eta garraztaren arteko konbinaketak produktu indartsua osatzen du», agertu du Mikelek.

Hasiera batean postrerako pentsatutako edaria zen, baina gero eta gehiago dastatu, gero eta aukera gehiago ikusten dizkiote. «Gure betiko sagardoak balio du aperitiborako, balio du lehen eta bigarren plater baterako, berdin haragiarekin edo arrainarekin, baina postre gozo batekin ez da ondo etortzen. Eta gure betiko sagardoak duen hutsune hori bete nahi genuen», segitu du Mikelek.

Bizi-Goxoren oinarrian errezil sagarra dago, Euskal Herriko sagar barietate ezaguna. «Euskal etxeetan asko erabili izan da errezil sagarra; konpota egiteko, sagar erreak egiteko... Oso garantzitsua iruditzen zaigu gure produktuak oinarri bat izatea, zimendu bat. Inspirazioa eta berrikuntza oso ondo daude, baina

une batean zure buruari galdetu beharra daukazu 'zer daukat nik etxean horrelako zerbait eskaini ahal izateko?'. Euskal Herrian altxor handia daukagu sagar barietatei dagokionez, denetarik daukagu, eta hau egiteko egokiena errezil sagarra da. Base-rietako ganbaran lau hilabete- an egon daitekeen sagar bat, usteldu beharrean zimurtu egiten dena, zerbait kontatzen ari zaizu. Horri eutsi behar zaio», gaineratu du Miguelek.

Bizi-Goxo 7-8 gradu artean dastatu behar da eta, aukeran, digestiboak edo antzeko produktuak edateko pentsatutako kopan. «Hotzaren etsaiak gara gu, edari bat hotzegi edaten duzunean ez duelako inolako aromarik izaten, ez onerako eta ez txarrerako. Eta kopa gomendatzen dugu, produktuaren aromak indartzeko», agertu du Mikelek. Baina albotik bere aita Miguelek nabarmendu duenez, «hau guztia teoria da, produktu berria delako. Akaso gero praktikan gauza batzuk zuzendu beharko ditugu, baina kontsumitzailearekin batera ikasteko

prest gaude». Bizi-Goxo sagardoa bere estutxe eta guzti saltzen da, litro erdiko botila 15 euro inguruan. «Pareko kalitateko ardoen parean edo merkeago».

Produktu berri bat merkatura-tzerako orduan, Mikelen esanetan, kezka nagusi bat izaten da: «Guk nola interpretatu dugun produktua eta kontsumitzaileak nola interpretatuko duen. Alferrik da hiru urtean lanean aritzea eta esanahi bat ematea produktuari gero, merkatuak, erabat beste modu batera ikusten badu. Oraingoz harrera oso ona izan du produktuak, dagoeneko salgai dago eta pozik gaude», jarraitu du.

NIGERIATIK SAGARDO BILA

Miguelen esanetan, «produktu hau akaso ez da mundu guztia- rentzako izango, baina lasai esan dezakegu munduko edozein mahaitan jar daitekeela, maila goreneko kalitatea daukako. Munduko edozein mahaitan atera daiteke Bizi-Goxo duintasun guztia-ekin eta originaltasun guztia-ekin, lehen mailako produktua delako».

Eta honaino iritsita, betiko sagardoak lortu al du munduko edozein mahaitan egotea? «Ari gara, baina oraindik lana dago egiteko. Duela hamar urte ez genuen imajinatu ere egiten gure sagardoak mundu mailan bidea egingo zuenik. Badira horrelako produktuak eskatzen ari diren bezeroak eta gu harrituta gaude munduko zein tokitatik etortzen zaizkigun sagardo eske. Azken asteetan Nigeriatik deitu digute. Bertako enpresa batek deitu digu gure sagardoa bertan merkaturatu nahi duela esanez. Zer bide egingo duen? Auskalo, baina duela hamar urte ez zitzaigun burutik pasatu ere egingo Nigeriako enpresa batekin arituko ginenik. Eta joan den astean Danimarkako bi enpresa etorri ziren».

Berritzeko beharra ez da seinale txarra. «Eguneroko lanetik atera eta haize freskoa da horrelako produktuak kaleratzea. Gainera, beste kontsumitzaile baten aurrean jartzen zara, eta hori erronka interesgarria da beti», bukatu du Miguelek.

Ikusiaren ikusiz, eszitazioa galdu

Maidar lantzi Goienetxe


Gutxiago hunkitzen omen gara. Indarke-
ria eta sexu

irudien aitzinean eszitatzen gaitasuna galtzen ari garela dio Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko azterketa batek. Egoera emozionalak, adibidez plazera eta kitzikadura, denbora errealean neurtzeko eskala berri bat erabili dute ikertzaileek, "The Affective Slider" izenekoa. Eta tresna horrekin enpirikoki frogatu dute estimulu eszitanteek ez digutela lehen adina eragiten.

Zientzialarien ustez, "desentsibilizazioaren" arrazoa, segur aski, hedabideetan mota honetako hainbertze eduki azaltzea da. Hala, 90eko hamarkadan hagitz kitzikagarritzat jotzen ziren irudiek karga emozional txikiagoa dute orain. Zein neurritan aldatzen ditu esperientziak gure emozioak eta adierazpenak? Eta plazera eta eszitazioa?

Berdin ikusten al dute irudi bera adineko pertsona batek eta gazte batek? Eta heldu batek eta haur batek? Dagoeneko dena ikusia dutela aditu izan diegu zaharrei. Begiekin mundua jaten dute, berriz, umeek. Pertsona baino mugikor gehiagoz osatutako mundua. 7.300 milioi tramankulutik gora.

Pentsatzekoa da horien bidez egunero irudiak partekatzeak, eta orokorrean, telebistaren, ordenagailuaren edo edozein pantailaren bidez iristen zaigun estimulu pilak eragina duela gure emozioetan. Anestesiaren ondorio berak izan ditzake. Harritzeko gaitasuna txikitzea ekar dezake. Baina ez hori bakarrik: zer den errealtatea eta zer fikzioa bereizteko zailtasunak ere sortzen ditu. Zenbat begiratzen dugu kanpora eta zenbat pantailara? Mugikorrarekin ohituta dagoenak zalan-tzan jartzen ditu jasotako irudiak. Ez ditu sinesten. Ohituta ez dagoenak bai, ordea. Ez da egia zaharrek dena ikusia dutenik. •



Dendan museo txiki bat dute, argazki kameraz osatua. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

infraganti AITOR RODRIGUEZ

Argazki kamera bat jarri zioten eskuetan Aitor Rodriguezi oraino ume zela. Gogor heldu zion tramankuluari, harik eta argazkigintza ofizio bilakatu zaion arte. Kontua, baina, harago doa; egunero hobetzeko ahaleginean dihardu, eta ahalegin hori saritu diote: One Eyeland webguneak aipamen berezia egin dio bere argazki bati.

Familia oso bat argazkigintzari emanda, hala irudika ditzakegu Rodrigueztarrak. Aita Angelek zabaldu zuen bidea, eta Aitor eta Xanti semeek indartsu heldu zioten aitak jaurtitako sokari, hark zabaldutako bidea egiten jarrai

zezaten. Hiruretako edonor izan zitekeen lerrootako protagonista; hirurek dituzte lehen lerrora ekartzeko arrazoiak, hirurek egin dute bidea argazkilartzan, hirurek dute zer kontatua. Baina gurea aktualitatea da, eta aktualitateak markatzen digu agenda, baita protagonistak proposatu ere. Eta aktualita-

teari jarraiki, Aitor Rodrigueze-kin (Azpeitia, 1976) egin dugu hitzordua, bere aitak zabaldu zuen Angel Argazkiak dendan. One Eyeland webguneak bere argazki bati aipamen berezia egin dio, eguneko argazki *–picture of the day–* izendatuz.

Hasieran adierazi bezala, argazkigintzari emandako sendia da Rodrigueztarren, eta anaia Xantirekin egin du Aitorrek bidearen zatirik handiena. Oroitzen du 11-12 urteren bueltan hartu zuela esku artean bere lehenengo argazki kamera; nola ez, aitak anaia eta biei oparitua: «Hasiera hartan, baina, ez ninduen gehiegi erakarri; jolasera-ko beste gailu bat gehiago zen eta kito». Urte gutxiren buruan –Aitorrek 13 bat urte zituela–, baina, aitak denda zabaldu zuen. Hala hasi ziren Aitor eta Xanti dendan denbora igarotzen, aitaren jardunari so. Dendan egiten zuena adi jarraitzeaz gain, aitak kanpoan egiten zituen lanetara ere –adibidez, ezkontzak– joaten hasi ziren. «Aita zuzenean lanean ikusten hasi nintzenean hasi zitzaidan haren jarduna gustatzen; egindako lanaren ostean jendea dendara etortzen zen argazkien bila eta aitak zorionak jasotzen zituen. Ikusten nuen gure aitak jendea gustura uzten zuela, eta horrek satisfazio handia eragiten zidan», dio Aitorrek.

Urteek aurrera egin ahala, aitak denbora horretan egindako lanei erreparatzen ere hasi zen Aitor. Pase familiarrak egin ohi zituen batik bat –erabat asperitzen ziren anaia eta biak aita zeregin horretan zebilenean–, eta denborarekin hasi zen Aitor Angelen jarduna baloratzen: «Lanaren alde artistikoa baloratzen hasi nintzen, argazki haiei ‘zera’ hori aurkitzen hasi nintzen». «Egia da anaia eta biok –jarraitu du– betidanik izan garela imajinazio azkarrekoak. Hori hala, argazkigintza gure imajinazioa inprimatzeko tresna izan zitekeela ikusi genuen». Ikusi eta ikasi, Bartzelonarako bidea hartu baitzuen Argazkigintza, Bideogintza eta Postproduktzioa ikasteko.

19 urte betetzerako, eta ikasketak amaitu bezain pronto, ai-


taren dendan lanean zen Aitor. «Egia esan, gehiago ikasi nuen aitarekin lehen hilabeteen Bartzelonan egin nituen hiru urteetan baino. Ikasketak, batez ere, alde teorikotik zuten praktikotik baino gehiago; ofizioa, beraz, aitarekin ikasi nuen».

ERREFERENTZIA SEKTOREAN

Aitor Rodriguezen urte luzetako jardunak, baina, izan du emailtzarik ere. Garrantzitsuena eta azkena One Eyeland webgunearen partetik jaso duen aipamen berezia. «One Eyeland webgune bat da, argazkilari profesional talde batek sortua. Helburu bezala du mundu mailako argazkilari profesional guztiak bateratzea, lehen mailako argazki-base bat izateko asmoz», azaldu du. Hori hala, webguneko arduradunek jasotzen dituzten argazki guztien artean filtro bat egiten dute; minimo batzuk beteta, euren kolektio ofizialean agertzen dira argazkiak. Kolektio ofizialaren baitan hiru aipamen nabarmenak dira bereziki: eguneko argazkia, asteko argazkia eta hileko argazkia.

«Lehenengo filtro hori gainditzea garrantzitsua da jada. Zure izena zabalitzen laguntzen dizu, eta bezeroei egiten duzun lanaren berri emateko baliagarria da, baita norberaren estiloa zabalitzen laguntzeko ere. Prestigioa ematen duen webgune bat da, mundu mailan gainera», adierazi du Aitorrek. Bere lagun baten esanei esker iritsi zen webgunera, eta «ikaragarria» iruditu zitzaioela dio: «Lehen mailako webgune batekin aurkitu nintzen, profesionali begira eginikoa». Hala bidali zituen bere lanak webgunera, urrun iristeko asmo handirik gabe. «Pentsatzen duzu zure argazkiek ez daukatela hainbestearainoko mailarik, ez direla hautatuak suertatuko. Baina nire erreferentzia guztiak daude bertan, eta horrek eraman zidan nire lanak bidali eta zortea proban jartzera», azpimarratu du.

Zoria proban jartzeko, baina, babak heltzean jarri behar. Eta halaxe egin zuen Aitorrek, bai eta asmatu ere: eguneko argazki *–picture of the day–* bezala



Bere estudioan, aipamen berezia jaso zuen argazkia besapean duela. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

hautatu zuen webguneak bere lan bat. «Zure argazkiak aipamen berezi bat jaso duela jakiteak kristoren txutea ematen dizu, batik bat sona handiko argazkilariek osatutako epaimahai baten erabakiaren ondorio dela dakizunean. Hautatua izan zen argazkiarekin baneukan esperantza apur bat, ondo eginiko lanaren emaitza zen eta», onartu du. Aipamenak, batez ere, argazkilarien sektorean dauka eragina, eta sona irabazteko balio izan dio.

OFIZIOAREN AJEAK

Aitor Rodriguezek, argazkilari gisa, izan du bilakaerarik, baina argazkilaritza berak ere bai, tamaina handiagoan agian. Aitorrek, argazkilari bezala, orain sei-zazpi urte eman zuen saltoa FEPFI Argazkilaritzaren eta Iru-diaren Profesionaleen Espainiako Federazioan izena eman zuenean. «Ordura arte oso argazkilaritza klasikoa jorratu izan nuen.

Produktu jakin bat eskaintzen genuen, norabide jakin bat jarraitzen zuena, betiere asko al-dendu gabe norabide horretatik. Kontua zen jendeak ere hala eskatzen zigula», azaldu du. Federazioan sartzearekin batera, baina, argazkilari ezberdinak ezagutzen hasi zen Aitor, erreferentzia berriekin aurkitu zen... «Ohartu ginen gauzak ongi egiten ginituela, baina hobetu ginitzakeela», gaineratu du.

Aldi berean, baina, gizartearen digitalizazioa eta irudiaren kulturaren indartzea etorri dira: «Horrek beste arazo batzuk ekarri ditu: erretratua gutxietsi egiten da egun eta ez baduzu ezer berri-

«Zure argazkiak aipamen berezi bat jaso duela jakiteak kristoren txutea ematen dizu, batik bat sona handiko argazkilariek osatutako epaimahai baten erabakia dela dakizunean»

«Erretratu soziala egiten jarraituko dut, egunerokotasuna eta pertsonak harrapatzen. Hori, baina, modu kreatiboago batean egin nahiko nuke, irudimenari bide emanez»

tzailerik egiten badirudi ez zaituztela baloratzen. *Selfie*-kin gertatzen dena da, adibidez, argazki originalak ateratzen direla, baina kalitate aldetik hutsaren hurrengoak direla». Jendeak molde klasikoak albo batera utzi

izanagatik ere, errezelotak ere badaudela gaineratzen du Aitor Rodriguezek, «batez ere lan modernoago bat eskatzen dizun horren familiaren partetik».

Kontuak kontu, baina, oso argi dauka Aitorrek

zein den jarraitu nahi duen bidea. Eguneroko momentuak eta, batez ere, pertsonak erretratatzeko du gustuko, eta horretan sakontzea gustatuko litzaioke:

«Adibidez, familiarekin oporretara noanean eta, gauden toki horretako jende heldua, bertako jantzi tradizionalekin, erretratatzeko gustatzen zait». Jendea harrapatzeko beste momentu egoki bat ezkontzetan izan ohi dela gaineratu du, «ongi pasatzen ari direla nabari denean, broma bat egiten den momentua harrapatzean...». Erretratu sozialarekin jarraituko du, beraz, baina modu oso kreatiboan, irudimenari bide emanez.

Eta nola ez, jarraituko du ere bere argazkiak hara eta hona bidaltzen, aipamen gehiagoren bila betiere. «Behin maila horretako aipamen bat lortuta, nire buruarengan gehiago sinesten dut, eta horrek ahalegin horretan sakontzera eramaten nau. Behin aipamen berezi bat jaso badut, zergatik ez bigarren bat jaso?», egiten dio galdera bere buruari Aitor Rodriguezek. •

Aimar Etxeberria Korta



Iratxe Esnaola
Hezkuntzan doktorea

«Ziber(bullying)»-a

Pasa den astean eman ziotuen ezagutzera EAEko Hezkuntza Sailak eskolajazarpen edo «bullying»-aren eta «ziberbullying»-aren inguruko datuak. 2007-2008 ikasturtean hasi ziren «bullying»-ari dagozkion datuak jasotzen eta «ziberbullying»-aren gainekoak 2013-2014 ikasturtetik aurrerakoak dira. Orain informazio hori guztia modu sistematizatuan jasotzen dela azpimarratzen dute.

Informazio hori oinarri, azken zortzi urteotan 1.284 salaketa jaso direla adierazi zuten eta horietatik 509 kasu baieztatu egin ahal izan zirela. 1.284 salaketa horietatik, 694 kasutan, salaketa neska batek jarri du. Gainontzeko 590 kasuetan, mutil batek. Salaketa horiek guztiak 5 eta 18 urte bitarteko ume eta gaztetxoan artean emandakoak dira, hortaz, ikasketen edozein mailatan gerta liteke. Halere, 449 kasu 12 eta 13 urteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean eman dira. Beste 29 kasu 10 eta 11 urtekoen artean (Lehen Hezkuntzako azken urteetan). Eta deigarria egin zaie txikiagoen artean 40 kasu eman direla.

Eta zein dira hartu dituzten neurriak? 1.082 kasutan zaintza areagotu zen. 22 kasutan gela aldaketa eman zen eta gainontzekoetan zein neurri hartu ziren ez zuen argitu Cristina Uriartek, EAEko Hezkuntza sailburuak.

Eta zein motatako jazarpenera bizi izan dute biktimek? Denetarik dago: eraso fisikoa, zuzenean (240 kasu); hitzezko eraso (204 kasu); jendarte bazterketa eta marjinazioa (164 kasu); larderia edo beldurra sortzea, xantaia edo mehatxuak (105 kasu); eta eraso edo abusu sexuala edo jazarpen sexista (33 kasu). Zenbakiok 746 kasu batzen dituzte, gainontzeko 538 kasuen gainean ez da ezer aipatzen.

Ziberbullying-aren kasuan, 2013-2014 ikasturtean 26 kasu hauteman omen ziren. 2014-2015 ikasturtean 16 kasu. Kasu hauetan, biktimen %6 ezgaitasunen bat duen pertsona bat zen. Beste %6 arrazismoarekin lotutako kasuak ziren eta beste %14 eraso sexista edo

homofoboak. Gainontzekoak, beste izaera bat izan dute.

Ziberbullying-aren kasuan, esan bezala, azken ikasturtean 16 kasu hauteman ziren. Egia esan, ez dakit zein komunikazio kanal ireki diren kasu hauek hautemateko. Ez dakit eskola eta Hezkuntza Sailaren arteko komunikazioa sustatu den. Edo guraso eta hezitzaileei ere kasu hauen berri emateko bidea argitu zaien. Dakidana da nik hiruzpalau institutu publiko bisitatzen ditudala urtean, eta guztietan eman direla kasuak (eta normalean bat baino gehiago). Eta hortaz, zenbakiak ez didate koadratzen.

Horri gehitu behar zaio, osteguneko «JoPuntuan» aditzera eman nuen bezala, *bullying*-a eta *ziberbullying*-a Erztzaintzaren bitartez lantzen dela eskolatan. Hau da, Hezkuntza Sailak, bere baitan, ez duela lanketarako eta prebentziorako plan berezirik (Segurtasun Sailetik egiten da). Institutu publikoetatik niri deitzearen arrazoia, Hezkun-

tza Sailetik eskaintzarik edo alternatibarik ez jasotzean kokatzen baita.

Nire uste apalean, «bullying»-a eta «ziberbullying»-a Hezkuntza Sailetik bideratu behar diren lanketak dira. Eta ez eman diren kasuen gaineko informazioa jasotzeko bakarrik. Hori ez da sistematizatu behar den prozesu bakarra. Prebentzioan jarri behar dira indarrak. Enpatia baloreen jarritik. Enpatia baita guztiaren giltza. Erasotzaile potentzialak bi aldiz pentsatzera eraman beharko genituzke. Eta erasotakoaren azalean jartzeko gaitasuna lantzen lagundu behar diegu. Eta erasotzaileekin ere enpatizatu behar da, erasotzen badiu, bere baitan sufrimendua dagoelako izango baita.

Bullying-aren eta *ziberbullying*-aren atzean sufrimendua dago, alde guztietatik. Eta arazoa konpondu edo minimizatu nahi bada, erroetara joan behar da. Eta errotik enpatiarako gaitasunak lantzen saiatu. Hori da bidea nire ustez. •



«Bullying»-aren eta «ziberbullying»-aren atzean sufrimendua dago, alde guztietan.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. FONDO PHOTOMUSEUM

BERGARAKO ALPARGATAGILEEN GREBAREKIKO AZKOITIARREN ELKARTASUNA

XIX. mendearen amaieran artisau-lanean alpargatak egiten zituzten hogeita hamarren bat tailer zeuden Azkoitian; Bergaran, 1868tik aurrera, alpargatak produzitzen hasi ziren bertako tailerretan; XIX. mendeko 80ko hamarkadan, eta josteko makinaren asmakuntzarekin, hauek erabiltzen hasi ziren alpargatak egiteko. Hala, XX. mendearen hasieran, 600 lagunek egiten zuten lan alpargaten industrian Azkoitian; Maulen, berriz, eskulanaren %40 hartzen zuen aipatu industriak. "La Voz Guipuzcoana" egunkari errepublikazaleak, 1890eko kronika batean, Bergarako alpargatagileek egin zuten greba baten berri eman zuen. Soldata duinago baten aldeko borrokan ziharduten, eta zioten nahiago zutela Somorrostroko minetara joan «zortzi erreale truke» lan egitera behartzen zituzten tailer haietara gerturatzea baino. Patronalak soldatak ez igotzeko erabakia hartu zuen, eta 1.000 pezetako multa adostu zuen erabakiaren aurka egiten zuen enpresariarentzat. Irudian, Bergarako alpargatagileekin elkartasunez Azkoitian egindako manifestazio bat ageri zaigu, hainbat guardia zibilen begiradapean egin zena.



GAUR8 *ireki gure leihoa*

